

Zaintzen Pedagogiarako haziak

Malen Álvarez

Izenburua: Zaintzen Pedagogiarako haziak

Edizioa: InteRed Fundazioa

Argitalpenaren koordinazio teknikoa: Iratxe Palacín Garay

Egilea: Malen Álvarez

Eskerrak: asko dira lan honetan parte hartu duten pertsonak eta eskerrak eman nahi dizkiegu, beraien ekarpenak, ezinegonak eta konpromisua lan honen emaitza direla ziurtatuz: Malen álvarez, Nora Silva Leis, Rubén Gallego, Macarena Arrieta, Guillermo Aguado, Jorge A. Correa eta Josune Urrutia Asua.

Berrikusketa: Guillermo Aguado de la Obra

Itzulpena: Bakun S.L.

Azala ilustrazioa, diseinua eta maketazioa: Josune Urrutia Asua

Data: 2018ko apirila

ISBN: 978-84-946423-4-0

CC BY NC ND

Argitalpen hau Garapeneko Lankidetzaren Euskal Agentzia eta Bizkaiko Foro Aldundian finantzazioarekin burutu da. Argitalpen honen edukia InteRed Fundazioaren ardura da eta ez du GLEA edo BFA aren iritzia islatzen.

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZAINTZEN PEDAGOGIA
PEDAGOGÍA DE LOS CUIDADOS

InteRed
por una educación transformadora

6 Zaintzen Pedagogiarako haziak

7 Sarrera

10 Une kritikoa

20 Zaintza esaten dioguna

21 Zaintzen Iraultza

23 Zaintzen Pedagogia Hezkuntza Eraldatzaile baterako

24 Zer behar du gutaz zaintzen Pedagogiak?

24 1. Zaintzak onartzea

26 2. Zaintzen antolaketa soziala aztertzea

32 3. Zaintzen krisia salatzea

33 4. Esplotazio egoeran dauden zaintzen kate globalak salatzea

33 5. Gure zaintza-zorra onartzea

35 6. Zaintzaren etika justiziaren etikarekin uztartzea

37 7. Alde pertsonaletik kolektiborako zaintzan haztea. "Alde pertsonala politikoa da"

39 8. Gorputz, emozio, kognizio eta erlazioen aldeak integratzea

44 Lanerako ideia gehiago

48 Ondorioa: kontzientziaren bidea

55 Bibliografia eta intereseko erreferentziak

Zaintzen Pedagogiarako haziak

En estos días
todo el viento del mundo sopla en tu dirección

Silvio Rodríguez

Malen Álvarez

Filosofia eta Letretan lizentziatua da, Genero Ikasketetan diplomaua, Gestalt terapeuta titulatua eta psikologia- eta gorputz-hezitzailea. Hezkuntza formalean eta ez-formalean aritzen da lanean, txandaka. InteReden Hezkuntza Eraldatzailearen bokazioa oso hurbileko sentitzen du, bereziki arlo hauen bilaketan: barnekotasuna, gorputza, kontzientzia, ahozkotasuna eta alde sinbolikoa... amatasunetik, jolasetik eta zaintzatik ikasiz.

Sarrera

Gaur egun... zer gertatzen da gaurko egunean?

Nori galdetzen diogun, era batera edo bestera erantzungo digu. Seguruenera, askok eta askok bat egin eta zer edo zer kezkagarria adieraziko dute. "Senperrenak ikusten ari garen honetan". Egunotan, gutxieneko, zalantzaren noraez horretan gabiltza denok. Eta ondoeza ere sentipen nahiko hedatua da.

Nolakoak dira egun hauek zuretzat? Zer sumatzen duzu zure inguruan? Ondo ari al gara? Hezkuntza-ereduak funtzionatzen al du? Lanean ari zaren hori baliagarria al zaizu? Gazteak motibatuta eta ikasteko gogoz al daude? Axola al zaie zer gertatzen ari den munduan, edo zer gertatuko zaien etorkizuneko belaunaldiei? Munduan, zure herrialdean, auzoan, zure inguruan, jende gehiena zoriontsua al da?

Zer ez dabil ondo?

Horri buruz ariko gara hemen. Horri buruz eta horren gaineko gure ikuspegiari buruz. Une historiko zirraragarri honi buruz; izan ere, ezagutzen genuen hori (gure erreferentziazko paradigma) krisira eramaten ari da mundua, eta, aldi berean, ikusteko eta gauzak egiteko beste modu bat sortzen ari da, biziraungo badugu eta zoriontsuak izango bagara, beharrezkoa baita beste modu batera bizitzea. *Ikasteko gauza berriak daudelako, eta nola bizi nahi dugun, hezkuntzak bide horretatik jo behar duela pentsatu behar dugulako.*

Eta eginkizun horretan zuk ere baduzu zeresana. Haize honek zure noranzkoan ere jotzen du... izan ere, denok gaude barnean[1]. Aspaldi da mundu global batean bizi garela, eta mundu horretan dena dago loturik. Testu hau irakurtzen aritzea, haize-bolada horren eragina da, aldaketa posible hori lortzeko urrats bat. Beraz... ekin diezaiogun!

Testu honen oinarrian dagoen materiala modu kolektiboan sortu da: munduko hainbat lekutatik, esperientzia eta ikuspegi askotarikoetatik datozen hausnarketak, analisiak eta proposamenak biltzen dira lan honetan. Oinarrian Hegoal-

1 Zer zaila de hizkuntza barne-biltzaile baten formula on bat aurkitzea! Hizkuntzan inor ordezkatu gabe ez geratzeko modu bat... Testu honetan ikusarazteaz ariko gara batez ere. Euskarazko itzulpenean ez dugu halako arazorik, baina gaztelaniaz ez dugu femeninoa ezkutuan utzi nahi izan maskulino generikoaren atzean. Beraz, denok pertsonak garenez, gaztelaniaz femeniko generikoa erabili dugu txandaka (egileen lizentzia).

deko epistemologiaren ideia dago (De Sousa, 2010): ideia horren arabera, baliozko jakintza-modu asko daude, jakiteko modu asko; eta egokia eta zuzena da modu horiek kontuan hartzea eta bidegabekeriak eta desorekak jasaten dituzten pertsonen artean sortzen diren ezaguerak ere jasotzea. Egiazko jakinduriak, pentsatzeko modu asko barne-bildu behar ditu gizateriaren erronka handiei erantzuteko, ez soilik pentsamolde hegemonikoak: ingurumen-iraunkortasuna, justizia soziala, giza eskubideak mundu osoan betetzea.

Eta hemen proposatutakoa, oroz gain, iradokizun mailakoa da. Zenbait orientabide, ikuspegi eta burutazio proposatu ditugu. Ez dugu Zaintzen Pedagogiarekin loturiko lan-plangintza bat, programazio bat edo curriculum bat landu hezkuntza-eremuetarako. Besterik gabe, ideia hori nola ari den hedatzen eta lurreratzen hausnartu eta azaldu dugu, zer proiektu gauzatu diren eta nola gorpuzten ari den edo gorpuztu daitekeen ideia hori esku hartzen dugun gune formal eta ez-formaletan. Uste sendoa dugulako, zauden lekuan zaudela, zaintza modu eraldatzailean garatzeko modua sortu ahal izango duzula beste pertsona batzuekin batera.

Izan ere, eraldatzeaz ari gara. Zaintzen Pedagogiaren planteamendua da hezkuntzaren helburuak berriro formulatzea: laneratze produktiboa hartu beharrean jomugatzat, hezkuntzaren xedea izatea bizitzaren iraunkortasuna, gizateriaren eboluzioa eta justizia soziala. Gure produkzio-sistemak gutxiengo baten ongizatea (itxurazkoa, ikusiko dugun eran) bultzatzen du, gehiengo handi baten eta guztiona den naturaren sufrimenduaren eta ustiakuntzaren bizkar. Kapitalismo heteropatriarkalak merkatua du ardatz eta alboetara uzten du bizitza. Denbora, espazioa, gizarte-antolaketa, hezkuntza, produkzioaren eta banakoen etekinaren idealekin bat etorriz egituratzen dira. Bai, hezkuntza ere bai. Duela urte batzuk, Eduardo Galeanok (1998), egoera globalari buruzko analisi kritiko batean, honela formulatu zuen: hankaz gora gaude eta mundua alderantziz jartzen duen eskola bat dugu ("eskolatzat" harturik sistema honetan nola mugitu adierazten digun ikasketa-prozesu ez-formala). Haren irudia berreskuratu nahi dugu gaur, geure buruari galdetzeko nola utz diezaiokegun beldurra, bidegabekeria, bazterketa, elkarren arteko aurkakotasuna eta inkomunikazioa ikasteari, gure egiazko izatearen kontrako noranzkoan garamatzate-eta. Orientabide hori zer hezkuntzak iraul dezakeen planteatzeko.

Ezaguna egiten zaizu egoera? Halakoak bizi izan dituzu zure jardunean? Nahi gabe alderantziz doazen gauzak egiten ari zarela sentitzen duzu, berezko edo desiratutako norabidearen aurka, edo zure baitan kontraesana sortzeko mo-

duan? Adibidez: hauskor sentitzen naiz, baina indartsua naizela erakutsi behar dut; oso nekatuta nago, baina ekinean jarraitzen dut; entzun egin nahi dut, baina hizketan hasten naiz; jabetzen naiz bidelagun izatea zeinen garrantzitsua den, baina horren ordez zigortu egiten dut...

Zaintzen Pedagogiak horixe du helburu: alderantzizko joera hori zuzentzea. Paradigma aldaketa proposatzen du horretarako: **bizitza erdigunean jartzea eta bizitza zaintzeko konpromisoa hartzea**. Zer garen onartzea eta garen hori izan ahal izateko heztea: elkarren beharra dugun pertsonak, zaurgarriak, zaintzen beharra dutenak eta besteak zaintzeko, natura eta etorkizuneko belaunaldiak zaintzeko gai garenak. Bizitzari, bizitza onari, eusteko beharrezkoak diren jarduera eta jarreretan hezten gaituen bidea da. Bide horrek, balio eta gaitasun hauek hartzen ditu ardatz: zaintza, elkartasuna, enpatia, autonomia, autoestimua, harreman afektiboak, norberaren ahalduntzea eta kolektiboa, komunitatea, parte-hartzea, sormena, jolasa, kontsumo arduratsua eta eraldatzailea, etab. Eta balioa ematen dio bizitzari eusteko lanari, historian zehar gehienbat emakumeek bete duten eginkizun funtsezko horri.

Pedagogia eraldatzailea da, hezkidetza baitu oinarri: auzitan jartzen du indarrean den garapen-eredua eta sexuaren araberako lanaren banaketa. Zaintzari, erreprodukzioari, laguntza emateari, doakotasunari eta beharrari balio handiagoa ematea eskatzen du. Bizitza eta bizitzari loturiko beharrizanak ardatz hartzean, merkataritza-ekoizpenera bideratuta egon den guztia (ordutegiak, ohiturak, elikadura, hezkuntza, osasunaren kontzeptua, espazioak eta abar) eraldatu egiten da.

Hausnartzeko:

Errepara diezaiogun une batez arestian aipatutako hitz zerrenda horri:

ERREPRODUKZIOA, LAGUNTZA EMATEA, DOAKOTASUNA, BEHARRA.

Arnas itzazu: arnasa hartu-hitza, arnasa bota-hitz bera. Zer datorkizu burura? Zer oroitzapen, zer irudi edo sentipen ekartzen dizkizute burura hitz horiek? Izan al daitezke horiek hezkuntza-eredu baten zutabeak? Zer pentsarazten dizu?

Eta hori iraultzailea al da? Zer lekutan jartzen zaitu? Ideologia atzerakoi baterantz itzultzen ari ote gara?

Beste hezkuntza-proposamen batzuen ildo berari jarraitzen dio proposamen pedagogiko honek. Horien artean daude bakerako hezkuntza, kulturartekotasunerako hezkuntza, zoriontasunerako, samurtasunerako, justizia sozialerako hezkuntza, barnekotasunaren hezkuntza, hezkuntza demokratikoa, konfiantzaren pedagogia, mugako pedagogia. Eta hainbat iturritatik edaten du: feminismotik, ekologismotik, ekonomia feministatik, kulturartekotasunetik, ekofeminismotik, giza eskubideen ikuspegitik. Hortik abiatuta, zaintzaren etika bat planteatzen du, justiziaren etikaren osagarria, eta ez horren aurkakoa. Hau da, giza eskubide unibertsalak lortzeko ahalegina babesten du, eta, horrekin batera, baita pertsonek eguneroko bizimoduan dituzten beharrizan jakinak asebetetzea ere. Latinoamerikako Bizitza Onaren proposamena ere badu oinarrian: eredu horrek, ongizate hutsetik harago, eredu neoliberala eta horren antolaketa soziopolitikoa modu kritikoan berrikustea proposatzen du. Aurrerago (ikusi 2. kapitulua) ariko gara horri guztiari buruz.

Une kritikoa

Jakintzaren arlo askotatik salatzen denez, gaur egungoa *krisi garaia da*. Krisi hori zertan datzan aztertzen badugu, ezagun da ez dela joan-etorriko krisia edo leku jakin batekoa; aitzitik, dimentsio askoko krisia da (krisi ekonomikoa eta garapen-ereduarena, giza harremanena, klimarena eta zaintzena), globala (mundu osoan du eragina eta nabaritzen dugu dena dagoela elkarrekin loturik: mendebaldean teknologia zabaltzeak lotura zuzena du Afrikako gatazka armatuekin, eta horiek iraunarazten ditu), eta metatua. Elkarrekin harmonian biziraun ahal izatea arriskuan dago, gertatzen zaiguna *guztioi gertatzen baitzaigu*. Eta bizirautea, jarraipena izateko eta zoriontsu izateko aukerarekin bizirautea, guzti-guztion zeregina da orain.

Elkarren behar horretan harmoniarik ez dagoela adierazten dute, adibidez, naturaren gain eragiten dugun suntsiketak eta kutsadurak, eta gizakion arteko eskubide urraketek (indarkeria, desoreka, ustiaketa eta miseria). Indarrean ditugun produkzio-sistema esplotatzaile eta bortxazkoek kaltea eragiten dute ingurumenean, hondatu egiten dituzte erlazioak, ez dute uzten giza eskubideak betetzen eta arriskuan jartzen dute giza espezieak planetan jarraitzea. Munduan bizimodu oparoa dugun inguruetan, kontsumo-aukera gehiago ditugu eta modu okerrean "ongizate" esaten diogu horri, baina presaka, estu eta larri bizi gara, harremanei eusteko eta harremanak zaintzeko zailtasunekin, lan eta ekonomia arloan estu, alergia eta gaixotasunekin, oreka eta zoriontasuna aurkitu ezinik.

Jarduera:

A	C	O	M	P	A	Ñ	A	R	H	N	L	A	M	U	E	R	T	E	O
B	N	G	E	X	H	Q	B	T	E	I	A	K	L	Ñ	T	O	D	P	A
J	H	K	R	O	I	E	U	F	R	T	X	V	B	M	H	D	Y	S	U
N	G	L	D	J	U	M	L	R	I	A	Z	C	J	K	E	R	S	T	G
K	V	H	I	N	T	T	A	O	O	Q	V	U	F	L	E	S	E	I	A
O	N	Y	T	B	R	L	R	A	T	W	H	R	S	S	U	D	N	Y	R
N	F	I	U	G	E	P	R	C	Z	E	M	A	H	T	I	C	D	W	I
T	T	N	Q	E	W	O	A	R	E	R	T	L	A	F	G	V	A	Q	U
S	Y	B	Ñ	S	A	J	E	I	A	D	K	O	Z	I	N	A	T	U	G
O	D	K	F	T	Z	P	M	A	N	Y	L	R	Z	C	B	U	U	P	E
L	O	U	E	A	J	X	A	R	L	M	A	T	I	S	I	Y	A	B	S
A	A	R	I	R	O	C	N	Z	A	T	V	U	K	P	H	N	D	R	N
T	J	L	P	V	S	Y	S	F	G	S	A	Z	E	H	M	L	A	X	O
U	G	A	R	B	I	T	U	E	U	U	R	I	M	E	L	A	O	R	C
U	R	M	Z	R	H	W	O	P	N	A	Q	Y	Ñ	X	Z	P	V	B	V
I	E	V	A	L	S	F	C	Ñ	D	G	H	D	U	C	V	X	Z	P	Q
O	X	N	P	U	E	P	Q	Z	U	T	R	E	N	T	Z	U	N	O	P
R	S	U	A	S	I	S	T	I	R	E	N	F	E	R	M	E	D	A	D
S	L	G	H	J	K	L	Ñ	V	B	X	U	R	W	Q	O	P	A	Y	X
A	Z	V	X	R	A	S	A	B	E	L	E	A	N	H	A	Z	I	K	Ñ

Erantzunak: kozinatu, josi, erditu, sabelean hazi, bularra eman, hazi, garbitu, sendatu, entzun, herriotzean lagundu, ura lortu, kontsolatu

Hauek lirateke beste batzuk: ama hizkuntza erakutsi, etxeko aurrekontua kudeatu, emozioak adierazten erakutsi, elikatu... Besterik bururatzen zaizu?

Krisia *zaintzen krisia* ere bada. Zaintzak esaten diegu ongizate publikoa eta bizitzaren iraunkortasuna lortzen laguntzen duten jarduera sozialei eta banakakoei. Zeregin horiek beharrezkoak dira giza biziraupenerako, eta historian zehar emakumeek bete izan dituzte, musutruk eta familia-harremanen esparruan, ikusgarritasunik eta aitortzarik gabe (ordaindutako eta aintzat hartutako zereginak gizonek bete izan dituzte betidanik). Horietako batzuk (12) letra-zopan daude. Ea aurkitzen dituzun!

Bizitza iraunkorra izateko aukera ematen duen kapital soziala sortzen du zaintzak. Entzuteko, perspektiba izateko, konfiantza sortzeko gaitasuna duten pertsonak dira zaintza horren oinarri. Zaintzak jasotzea beharrezkoa da giza ongizaterako eta ikasteko aukerei probetxua ateratzeko. Izatearen motorra da, besteen zoriontasunarekiko interesa pizten du, eta beharrizanak asebetetzea eskatzen du hitzaren adiera osoan (beharrizan fisikoak, sozialak, ekonomikoak, afektiboak eta emozionalak).

Gaur egun, hainbat faktore direla medio, *zaintzen krisia* sortu da. Hauek dira faktore horietako batzuk: hirigune handietako bizi-baldintzak, laguntza-sare kolektiboak desegituratzea, erdi-mailako emakume asko eta asko etxeko espaziotik lan-merkatura ateratzea eta gizonak ez etxeetan sartzea, erakundeek zaintzara nahikoa baliabide (eta inbertsio) ez bideratzea... Pertsona askok beste batzuen laguntza behar dute bizitzeko (haurrek, adineko pertsonek, gaixoek edo dibertsitate funtzionala dutenek, etab.). Etxeetan horietaz arduratuko denik ez dagoenez, beste pertsona batzuk kontratatzen ditugu zaintza-eginkizunetarako. Horietako asko emakume atzerritarrak dira, eta hauek, aldi berean, familiako edo komunitateko beste kide batzuen esku uzten dute haien ardurapeko pertsonen zaintza (ia beti, beste emakume batzuen esku). Horrela sortzen dira *zaintzen kate globalak* deritzenak. Zaintza-lanak gizartean ikusezinak direnez eta gutxietsita daudenez, kate horiek normalean lan-baldintza prekarioetan edo emakume migratzaileak esplotatuz funtzionatzen dute. Horrela sortzen da *zaintzen zorra*: zaintzak ez dira modu orekatuan banatzen, eta pertsona batzuek (gehienbat emakumeek) ahalegin handia egiten dute, batzuetan beren etorkizuna kolokan jartzeraino, beste batzuk zaintzeko. Gizon askok zaintza gehiago jasotzen dituzte ematen dituztenak baino, eta Mendebaldeko gizarteak, aldi berean, zorretan daude munduko gainerako gizarteekin, jasotzen dituzten zaintzak direla eta.

Hori guztia aintzat hartuta, zaintza ondasun urria da, baliabide minoritarioa, eta modu pribatuan ordaindu dezaketen horien eskura dago soilik. Hala, giza

bizitzarako aldarrikatu dezakegun eskubide kolektibo izateari utzi dio zaintzak.

Eta, nola eragiten dio krisiak hezkuntzari? Zer ari da gertatzen? Zergatik hainbeste porrot, etsipen eta motibazio falta? Zergatik da hain zaila belaunaldien arteko elkarrizketa? Gazteak eta haurrak ere estresarekin bizi dira, arreta-zailtasunekin, motibatzen ez dituzten hezkuntza-eskakizunen hersturarekin, harreman autoritarioetan oinarritzen baitira eskakizun horiek (nahiz eta berrikuntza teknologikoarekin formulatu) eta, beraz, haien hezkuntza-testuingurua ez da sinesgarria. Hezkuntza-sistemaren porrota horren adierazle egokia da, inondik ere. Mundu bidegabe, desorekatu, azeleratu, produktibista eta eskakizun handikoan bizi badira, arrazoizkoa da pertsona helduok ikasarazi nahi dieguna ez interesgarria iruditzea, batez ere ez bada koherentea gure jardunekin.

Kulturaren ikuspegi androzentrikoak ere elikatzen du eskolaren krisia. Gizonak errealitatearen erdigunean kokatzen dituen paradigma batetik eraikitzen da eskola-transmisioa. Ez bada hori azaleratzen eta kontziente egiten, emakumeen aurkako umiliazio eta indarkeria bihurtzen da, herrien eta estatuen arteko gerra, "femeninoa" mendean hartzea eta gutxiestea. Horrela eskola kontraesankorra sortzen da, eskola iruzurgilea (Patarroyo, 2018): berdintasunaren aldeko diskurtsoak egiten ditu eskola horrek, baina praktika sexistei eusten die; berrikuntza sustatzen du eta aldi berean tradizio heteropatriarkala mantentzen du. Pentsamolde, aurreiritzi, arau, egitura eta erlazio patriarkalei eusten die. Beste horrenbeste esan dezakegu tolerantziari, kulturartekotasunari edo bakeari buruzko diskurtsoez. Kontraesan sakonak dira, eta eskolak salatu eta ulertu egin behar ditu, eraldatu ahal izateko, egiazko hezkuntza egin ahal izateko (ez itxura hutsa). Hezkuntza sinesgarria, sistema horretan esku hartzen dutenentzat, predikatzen duena gorpuztuko duena.

Hori dela eta, beharrezkoa da ondo ulertzea zertan datzan krisi hau. Ez da ez aldi baterakoa ez partziala; eredua bera dago krisian, gu geu sarean harrapatua gauzkan **paradigma** hau.

Gaur egungo gure garapen-eredua norbanakoaren etekinaren printzipioan oinarritzen da. Ekonomia-terminoak erabiliz, truke-balioa (prezioa) gailendu egiten zaio erabilera-balioari. Lana enpleguarekin lotzen da. Ekoizpen-prozesuak kapitala metatzea du xede, eta etengabeko kontsumoa du euskarri nagusi.

Eredu hori Modernitatearen testuinguru soziokulturalean hezurmamitzen da. Ilustrazioaren oinarri kulturalari jarraituz, garapenaren, zientziaren eta tekno-

logiaren mitoa sortzen da (horiek salbatuko dute mundua, eta emango diote bide gizateriaren eboluzioari). Horrela sortzen da hazkunde mugagabearen mitoa: ekoizpena modu mugagabean eta ondoriorik gabe haz daiteke, eta beharrezkoa da horrela egitea. Mundua gizakiaren zerbitzura dago, izakietan aurreratuena da, eta haren arabera antolatu behar da planetako bizitza (antropozentrismoa). Natura guztia gure eskura dago, ustiatua izateko. Pentsamolde hori, aldi berean, patriarkatuarekin dago loturik, edo zuzenago esateko, heteropatriarkatuarekin (ordena horrek gizona jartzen du agintean, familiaren eta bikote heterosexualaren erakundean oinarrituta, eta emakumea eta femeninoa, aldiz, gutxietsi egiten du, eta menderakuntza-erlazioak ezartzen ditu). Giza erlazioak hierarkian oinarritzen dira: maskulinoa nagusitzen zaio femeninoari, eta gizona emakumeari. Pentsamendu mota dualista gailentzen da, eta sorturiko errealitatea elkar baztertzen duten kategoria binarioetan egituratzen da: gizona/emakumea, aberatsa/pobrea, iparraldea/hegoaldea, etab.).

Modu horretara, ondasun materialak ekoizteko gizarte bat sortzen da, gizarte- eta genero-desorekan eta mugarik gabeko garapenaren fantasian oinarritua (horrek natura menderatzea eskatzen du). Menderakuntza, mugarik gabeko garapena, ekoizpena eta ustiakuntza dira gizarte horren ezaugarriak.


Baina ari gara konturatzen *planeta mugatu batek ezin diola eutsi mugarik gabeko proiektu bati* (Boff, 2012). Energia-iturriak agortze bidean dira eta klima-aldaketa uraren zikloan eragiten ari da eta etorkizunean ura izatea kolokan jartzen. Mendebaldea *zor ekologiko* izugarria pilatzen ari da munduko gainerako herrialdeekin, haien baliabideak zukutzen ari baita bere bizimoduari eusteko. Ondorioak nabarmenak dira: desoreka sozioekonomikoa, ingurumen-kalteak, indarkeriazko gatazkak eta elikadura-burujabetza galtzea. Beste eredu baten premian gara, **bizitza ardatz hartuko duen** eredu baten beharrean. Eredu hori bideratzeko, beharrezkoa da gizarteak modu aktiboan eta konpromisoz parte hartzea, giza garapenaren eta haren beharrizanen kargu egitea, bizitzari eutsiz eta bizitza zainduz (gizakiona eta bestea).

Eredu berri hori **paradigma berri** batean oinarritzen da. Izateko, jokatzeko, ekoizteko, ondasunak banatzeko eta hondakinak kudeatzeko beste modu batean, naturaren erritmoekin eta mugekin bat etorriz. Paradigma horretan lurraren parte garela ulertu behar dugu, parte kontziente eta arduratsua; besteak errespetatzeko, zaintzeko, gurtzeko eta besteei esker ona adierazteko gai den espeziea. Gizakiok ez beste inork ezin du etikaz jokatu; lurrak zer eskaintzen digun jabetu gaitezke, eta haren osotasuna eta emankortasuna zaindu dezake-

gu, eta, aldi berean, batak bestea ere zaindu dezakegu. Gu ez beste inor gara planetaren arduradun, kontzientzia eta sentimenduak ditugun heinean. Horregatik da gure egitekoa abegikor izatea eta elkar zaintzea.

Paradigma berri horrek giza harremanen beste ikuskera bat sortzen du. Zaintza-lanak (betidanik emakumeen esku geratu izan diren zereginak) gutxietsiak, ikusezin bihurtuak izan dira, eta aitortza edo garrantzi sozial, politiko eta ekonomikorik gabeak dira. Balioa ukatzen zaie alor publikoan eta erabakiak hartzerakoan; eta alde batera uzten da elkarren mendeko eta zaurgarriak garelako kontzientzia (galdu egiten dugu begirada sistemikoa). **Nork bere burua zaintzea, besteak zaintzea (hurbilekoak eta urrunekoak), desberdinak, natura bera zaintzea, gizateria osoaren zeregina eta ondasun publikoa dela ulertzea, funtsezkoa da gizarte moduan hazteko**. Eta horretarako, pedagogia bat behar da, hori jasoko duena eta ahalbidetuko duena.

Irudi horrek lagundu egiten du ulertzen gaur egungo paradigma iceberg bat dela. Izozmendi horrek agerian du zati bat, eta beste bat, askoz handiagoa, urpean, ikusezin. Ageriko zatia, nabarmentzen dena, aintzat hartu izan diren ekoizpen-lan ordainduek osatzen dute. Denbora luzean, gehienbat gizonek egin izan dituzte lan horiek, eta emakumeek baino baldintza hobeetan. Eremu ikusezinean, izozmendiaren urpeko zatian, alde batetik bizitzari eusteko beharrezkoak diren lanak daude: zaintzak (gizarte batean egiten diren lanik gehienak), historikoki emakumeen ardura izan diren eginkizunak. Eta bestetik, urpeko zati horretan dago, orobat, naturak eskaintzen eta sostengatzen duena:



bizitzeko aukera ematen diguten ondasun guztiak (ura, biomasa, elikagaiak, airea); ondasun horiek ezin dira ekoitzi, eraldatu baino ezin dira egin. Ekoizpena giza ilusio bat da; izan ere, moldatzen dugun guztia naturatik dator. Zati ikusezinak ezinbestekoak dira ageriko zatiari eusteko.

Hezkuntzaren erronka, beraz, sistema horren erdian heztea da, bestelako paradigma batean bihurtzeko; inor ez mendean hartzeko eta konkistatzeko, baizik eta zaintzeko eta errespetatzeko paradigma, hala banakako hezkuntza-erlazioan nola hezkuntza-sisteman (curriculuma, jakintza, espazioak, metodologia). Paradigma heteropatriarkalean indarrean diren aurrerapenaren eta garapenaren ideiek porrot egiten dute errealitatearen aurrean; ez digute balio hezkuntzaren helburua orientatzeko, eta helburu horrek ezin du izan bizitza ardatz hartzea besterik. Horretarako beste era bateko pedagogia behar dugu; ditugun arazoei, gaur egungo eta etorkizuneko beharrizanei egiaz erantzungo dien pedagogia. Lanerako ez ezik pertsona eta gizarte bidezkoagoak, zorrontsuagoak eta kontzienteagoak izateko prestatuko gaituena. Ekoizpena giza ilusio bat dela erakutsiko duena; izan ere, moldatzen dugun guztia naturatik dator. Eta bestelako garapen-eredu bat lortzen lagunduko duena, nahiz eta ez eredu horren arazo guztiak konpondu. Bizitza bera da hezkuntzaren iturri eta xede. Ikasgelek eta prozesuek munduan izateko eta egoteko beste modu berri bati begiratu behar diote. Hezkuntzak ez du mugatu behar sistema erreproduzitzera; aitzitik, **planetan bizitzak berez duen zentzua berreskuratzea planteatu behar du eta gizartea humanizatu**. Eta horrek hezkuntzaren ikuspegi holistikoa sortzen du.

Jarduera:

Ea bideo honek zenbait ideia kokatzen laguntzen dizun: **Economía del cuidado,** Cristina Carrasco

Jarduera:

Adibidea: **OSOTASUNAREN KIDE IZATEA** (Zirkulu lotesleak)

Paradigma berriaz ari garenean, pertsona askok aipatzen dute **kide izatearen zentzua**, eta berreskuratu dezakegun eta berreskuratu beharko genukeen zerbait dela diote. Gogoratu behar da lurra ez dela gurea, baizik eta *gu garela lurrarenak*. Baina zer esan nahi du horrek, lurrarena izateak? Lurra erosi, saldu, landu, erabili... egiten dugu. Jakina, lurra gurea bada (hitzez hitz, jabego pribatua da), ezin dugu pentsatu gu lurrarenak garenik, ezta?

Sakoneko ekologiak hori du oinarrietako bat. Lurrarekiko **lotura**, izaki guztiekikoa, zaintzarako ezinbesteko sentimendua den aldetik. Hori oso argi jakin dute talde indigenek, lurrarengandik hurbil egon diren kulturek. Adibidez, sioux indigenek oso sakon hazten den indaba mota bat, biltzeko oso zaila, erabiltzen dute errito batzuetarako. Siouxek larreetako sagutxoei kentzen dizkiete indaba horren erreserbak eta horrela lortzen dute landarea, eta badakite hori egitean neguan sagutxoen bizitza jartzen dutela arriskuan. Hori dela eta, espiritualki animalia horiei loturik sentitzen direnez, sagutxoei jatekoa lapurtzen dieten bakoitzean aitortza egiteko eta barkamena eskatzeko otoitz bat egiten dute, eta indaba horien ordez artaleak eta urdai zatiak uzten dituzte.

Beste talde eta komunitate batzuek ere antzeko ohiturak dituzte; hala nola, baimena eskatzen diete animalia batzuei ehizatu aurretik, edo zuhaitzei, ebaki aurretik. Kasu horietan, badago horien jabe izatearen kontzientzia, baina ez da *kalte-ordainik ematen*: ez da ezer jartzen kendutakoaren ordez.

Horrelako ohiturak, gure bizimoduaren ikuspegitik, arkaikoak eta are irrigarriak begitantzen zaizkigu. Zer dela-eta barkamena eskatu, edo baimena eskatu, gure eskura dagoen zerbait hartzeagatik? Zer dela-eta egin beharko genuke horrelakorik?

Tira, antzinako bizimodu horiek *errespetu* handiko harremana izan dute beren ingurunearekin, oso argi izan dutelako ingurune horren mende zeudela. Eta errespetu hori eta elkarren arteko loturak sortzeko modu hori berreskura dezakegu zaintzaren gure ikasketarako.

Zer diren kontuak, orain, gure kultura teknologikoan, fisika kuantikoak, zientziarik aurreratuenetako batek, esaten du errealitatea, mailarik sakonenetan, erlazioa dela... eta materia/energia kontzientzia dela. Elkarrekin zerikusia du denak eta elkarren mende dago dena, loturik dagoelako. Lan honetan zabal dezakezu informazio hori: K. Wilber (1984, *La conciencia sin fronteras, 2. kapitulua*, eta 1987, *Cuestiones cuánticas*).


Errespetuzko antzinako ohitura horiek dioten gauza bera da. Eta erlijioek esaten dutenaren oso antzekoa. Bide batez, ba al dakizu zer esan nahi duen “erlijioso” hitzak? LOTESLEA esan nahi du. Latineko “religare” hitzak “berriro lotu” esan nahi zuen. Adiera hori berreskuratu nahi dugu gure proposamenerako: itxura batean banandu garen horrekin berriro bat egitea.

Nola landu dezakegu hori hezkuntzari dagokionez? Hemen ZIRKULU LOTESLEAK proposatuko ditugu: elkarri lotuta (lurrari, bizitzari) gaudela oroitaraziko diguten ekintza txikiak egingo ditugu, horien bidez zer edo zer itzultzeko aukera izan dezagun jasotzen dugunaren trukean. Zirkulu esaten diegu joan-etorriko prozesuak direlako eta irudi hori delako formatu egokiena prozesu horiei buruz hitz egiteko.

Nola litzateke hori? Bada, inguratzen gaituenarekin. Hezkuntza-eremuko elementu materialen bat aukeratuko dugu: ura, jatekoa, egurra, liburuak, arbelak...

Demagun egurrezko altzariak ditugula. Begien aurrean duguna nondik datorren ikertzen hasiko gara: zer izen duten zuhaitzek, zer basotan hazi ziren, nola garraiatu zituzten. Ondoren, gure taldearen eskura dagoen *jarduera adierazkor* bat proposatuko dugu, adinaren arabera (marrazki bat, dantza bat, abesti bat, olerki bat, eskutitz bat...), horren bidez taldean eskerrak emateko hurbileko edo urruneko baso horiei, erabiltzen ari garen egurragatik. *Jaso dugun* zerbait delako. Jarduera honetan jasotako horrek *zer kostu izan duen* ere adierazi beharko dugu: besteak esplotatuz edo neurriz gain egin ote den, ekosistema kaltetu ote den zuhaitz inbaditzailez, zer baldintzatan lan egin duten pertsonek, nolakoa izan den garraioa. Garrantzitsua da hori jakiteak sortzen dizkigun *sentimendue*i lekua egitea. Asaldagarriak edo negatiboak badira, nola hartzen dugu horien ardura?

Batzuetan, ezin da besterik egin, sentimenduei abegi egin baino ez...



Jimmy Liaoren ilustrazioa (2012) Abrazos-en.

Hori dela eta, jarduerak bigarren zati bat du: kalte-ordaina ematea edo lehengoratzea. Gure bizitzan baliatzen dugun guztiak edo onuraren bat sortzen digun guztiak kostu bat izan du ingurumenean eta gizartean. Zorretan jartzen gaitu ondasun horren jatorriarekin. Orduan, zer egin dezakegu zor hori ordaintzeko? Konpentsatzeko ekintza bat erabaki behar dugu taldean. Adibidez, kasu honetan bertako zuhaitz-espezieak landatzera joan gaitezke.

Argi dago ekimen hauek errealitate mingarriekin lotuko gaituztela. Hori dela eta, oso garrantzitsua da:

- Proposamena gure taldearen adinera eta hizkuntzara egokitzea (oso txikiak garenetik enpatiza dezakegu minarekin edo bidegabekeriarekin, eta merezi dugu jakitea nola eraikitzen den gure sistema).
- Emozioak adierazteko aukera ematea (1. zatia: onarpena) eta horiek izendatzen eta mamitzen laguntzea.
- Kaltea konpontzeko edo lehengoratzeko ekintza elkarrekin bilatzea eta gauzatzea (2. zatia: kalte-ordaina).

Adibidez: Gure teknologia moderno ia guztia koltan (kolunbita eta tantalita mineralen laburdura) deritzon mineral konposatuan oinarritzen da, eta koltana oso zaila da aurkitzeko. Mineral horren ekoizleetako batzuk Afrikako herrialdeak dira, batez ere KONGOKO Errepublika Demokratikoa. Koltanaren erauzketak gatazka geopolitiko handiak eragin ditu han. Langileak esklabotasunetik gertuko baldintzetan eta beste metal batzuen erradiazioaren eraginpean aritzen dira minerala erauzten. Koltanaren merkaturatzeak lotura zuzena du Kongoko gerrarekin eta mugaldeko herriekiko gatazkekin; eta sarritan, neskatilen bortxaketak gertatzen dira gatazka horiei loturik. Kalte sozialaz gain, ingurumenean ere kalte nabarmenak sortzen dira. Hori dela eta, "odolezko mineral" deritzenetako bat da koltana. Eskola edo prestakuntza-zentroetan ospatzeko kontua izaten da teknologia berriaren iritsiera. Baina ez dago kontzientzia handirik zenbateko zor ekologiko eta soziala egiten dugun produktu horiek erabiltzean: esklabotasuna, baso-soiltzea, ekosistemak suntsitzea, gerra- eta sexu-indarkeria.

Beraz, bi zeregin ditugu:

1. Prozesu horretan ekoizpenak suntsiketa dakar, eta guk prozesu horretan esku hartzen dugula **ONARTU** behar dugu. Arestian esan dugun moduan, *jarduera adierazkor* baten bidez, gertatzen den guztia adierazi behar dugu, eta hori jakitean nola sentitu garen ere bai. Ahal bada, jarduerak aukera eman behar digu afera honetan kaltetutako pertsonekin edo izaki bizidunekin zuzenean bat egiteko. Nor ari da lanean koltana erauzten? Ikus al ditzakegu pertsona horien eta haien lan-baldintzen argazkiak? **Alboan GKEaren "Gatazkarik gabeko teknologia" kanpainan aurki dezakezu informazioa**
2. **LEHENGORATU** edo itzuli egin behar dugu suntsitutakoa, kaltea konpontzeko ekintza baten bidez: zuhaitzak landatuz, meatzeetan esklabo moduan lanean ari diren pertsonentzat bidezko lan-baldintzak eskatzeko eskutitzak idatziz, teknologiaren bidezko merkataritza sustatzeko sinadurak bilduz, Afrikako eskolekin hartu-emana bideratuz eta gatazkek kaltetutako eremuetako haurren hezkuntza diruz lagunduz, edo bururatzen zaigun beste edozein ekintzaren bidez.

Zaintza esaten dioguna

Zaintzak, beraz, hainbat *adiera* ditu:

- Harreman babesle eta adiskidetsua, beste pertsona batzuen (hurbilekoak, urrunekoak edo ezezagunak) beharrizanei arretaz erantzutea.
- Baina zaintza da, orobat, mehatxupean dauden errealitateekiko *kezka edo herstura*; kezka horrek kaltea saihesteko edo mehatxuaren aurrean babesa emateko jarrera sortzen du. Hori oso nabarmena da ingurumenaz ari garenean; izan ere, hor dira gune babestuak, erreserbak, natura parkeak, etab. Prebentzio- eta babes-jarrera horrek garamatza kutsadura eta suntsiketa mugatzeko politika publikoak proposatzera eta are exijitzera.
- Zaintza da, halaber, zaindua izateko beharraren eta zaintzeko borondatearen arteko erlazioa, eta lotura horietaz arduratzeko prestasuna. Eta zaintza da, era berean, zaintzeko eta zainduak izateko behar dugun laguntza-sarea (*holding*); sare horrek ezin du izan edo luke izan behar ekimen pribatuen emaitza soilik; erakundeek ere baliabideak bideratu behar dituzte familietan egiten den zaintza-lan ikusezin hori sendotzeko.
- Horrez gain, zaintza dira iraganeko zauriak sendatzen eta etorkizunean zauri gehiago ez sortzen laguntzen duten prozesuak.

Bistan denez, **zaintzak ondorio politikoak ditu**, neurri kolektiboetan gauzatu behar delako. Ez da jarrera, leun, adiskidetsu eta maitekor hutsa. Ez da harreman banakako edo pribatu soila. Ez da borondatezko edo bat-bateko jokabidea soilik. Eta, jakina, ez da "segurtasuna" edo "prebentzioa" etiketen pean askatasun publikoak kontrolatzeko eta mugatzeko jarrera.

Leonardo Boff (2012) teologoaren arabera, zaintzen paradigmara aldatzeko ahaleginak *arrazoi adiskidetsua* behar du oinarrian, edo Eduardo Galeanok esango lukeen moduan, *sentitzen eta pentsatzen duen pertsona*. Beste pertsonekiko eta izaki bizidunekiko errukian eta enpatian oinarrituriko arrazoia da Boffek aipatutakoa. Mundu naturalaren eta gizakion artean halako *elkarrekikotasun* egoera (eta ez mendean hartzekoa) sortzen du arrazoi horrek, eta bide ematen digu *Lurraren eskubideak*[2] onartzeko eta gure planeta duintasunez eta begirunez tratatzeko. Hori dela eta, konpromisoa hartu behar dugu neurri

2 Eskubide horiek Evo Moralesek aurkeztu zituen, adibidez, NBEren Batzar Nagusian 2009an

zuzena aurkitzeko (gehiegikeriaren eta mugarik gabeko kultura honetan gure desirak orekatzeko), eta gure buruari eusten jakiteko (erantzun ahal izaten eta ez soilik erreakzionatzen, xume bizitzen, modu arduratsuan eta solidarioan kontsumitzen).

Zaintzen Iraultza

InteRed-en *Zaintzen Iraultza* esaten diogu prozesu horri. Iraultza, bai. Ez zaratatsua, bortitza edo sutsua, baina iraultza. Eraldaketa dakarrelako. Ekimen eta logika desberdinen bidez aurreko eskemak eta pentsamoldeak hankaz gora jarri eta suntsitzen dituelako. Eta, aurrerago ikusiko dugunez, horma fisikoak ere eraisten dituelako. Bestelako hezkuntza bat bultzatzen ari diren eskola batzuek espazioaren erabilera aldatu dute (adibidez, **Ondarroako Zaldupe Eskola Publikoan Hezkidetza arloko esperientziaren sistematizatzea**, InteRed, 2018), edo ikasgeletako hormak bota dituzte gune berriak, irekiak eta balio anitzekoak sortzeko (esaterako, **Arrasateko Arizmendi Ikastolako esperientziaren sistematizazioa: "Konfiantzaren Pedagogia" eta Gasteizko Ramón Bajo Eskola Publikoko esperientziaren sistematizazioa**, InteRed, 2018).

Gehiago jakiteko:

Tartetxo bat baduzu, **"Actúa con cuidados" kanpainaren bideoan** ikus dezakezu.

Zaintzen Iraultza honek **hiru dimentsio** ditu:

Erreprodukzioa: bizitzari eusteari dagokionez. Zeregin honetan, denona da ardura, gizonena eta emakumeena. Beharrezkoa da etxe-barnea demokratizatzea, helduen arteko harremanak horizontaltasunean planteatzea, eremu horretan ebazten baita kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka. Horretarako, beste maskulinotasun batzuk behar dira, gizon izateko beste modu batzuk. Eta bizitzari eusteko ardura ere sozializatu egin behar da: komunitatearen ardura da, ez soilik familia nuklearrarena. Gizarte-erakundeek, baita enpresek eta Estatuak berak ere, badute zereginik horri dagokionez (ordutegiak malgutzea, amatasun- eta aitatasun-bajak bideratzea, lana eta bizitza pertsonala uztartzeko legeak sortzea, etab.). Etxeko lanak modu bidezkoan arautuko dituen legedia ere falta da.

Ingurumena: bizimodu iraunkorrak sortzea, xumetasunetik abiatuta. Hemen ideia batzuk baino ez ditugu adieraziko. Iraultza honek eskatzen du eko-mendekoak garela onartzea: lurrari esker gaude gu hemen eta hura gabe ezingo ginateke izan; horrenbestez, zer egiten dugun zaintzea dagokigu. Iraultza hau betidaniko jakintzak berreskuratzeko bultzada da (Nola egiten da ogia? Nola laguntzen zaio pertsona bati bere bizitzaren amaieran?); energia, material eta denbora aldetik gastua mugatzeko deia; tokiko ekoizpena, elkartrukea edo trukea bultzatzeko akuilua. *Slow movement* delakoak bultzatzen ditu ekimen horietako batzuk. Elikadurari loturik sortu arren, mugimendu horrek bizitzaren esparru guztiak biltzen ditu, baita hezkuntza ere (*slow education*), hazkunde mugagabe eta azkarraren aurrean bestelako irizpide batzuk proposatzen ditu.

Dimentsio soziala: Ikuspegi aldaketa honetan funtsezkoa da ulertzea errealitatea elkarren mendeko zer bat dela, eta hor sartzen dela giza errealitatea ere. Pertsona guztiok elkarren beharra dugu, gure bizitza egin ahal izateko. Nor bere buruarekin aski delako ideia hori kapitalismoaren fantasia da (Robinson Crusoe, bakarrik moldatzen den gizona): izaki sozialak gara eta gizartean bizirauten dugu. Hurbilagoko adibidea da Cristopher McCandless gaztearen istorio hunkigarria, John Krakauerrek nobelatua eta Sean Pennen zinemara eramana (*Into the Wild, Bide basatiak*): gazte ipurterre batek natura basara jotzen du, bere buruaren bila, eta hil urren, hala idazten du bere egunerokoan: “zoriontasuna, partekatzen denean soilik da egiazkoa”.

Horregatik, zaurgarriak eta sozialak garelako, lan arloko emantzipazio soiletik haragoko askatasunaren alde egiten dugu apustu. Uste dugu egiazko *herritartasuna* parte-hartze sozialaren bidez hezurmamitzen dela, eta horretarako beharrezkoa dela zaintzea eta zainduak izatea: Zaintzarrak izatea (Cuidadania, gaztelaniaz). Horretarako, emantzipazioa ez ezik ahalduntzea ere behar da: pertsona bakoitzak ahalmena izatea bere aukerei bide emateko, errespetuz, nork bere buruarengan agintea izanez baina autoritarismorik gabe, elkarrizketan eta errespetuan oinarritutako harremanetan. Horrek, antolatzeko eta erabakitzeko modu parekideak, demokratikoak eta parte-hartzezkoak sortzen ditu eta eskatzen ditu.

Parte hartzeko zer gune daude zure ikastetxean? Ez badago horrelakorik, nola sor daitezke? Baldin badaude, nola hobetu daitezke? Gune horiek ba al dute loturarik komunitatearekin, hezkuntza-eremutik harago?

Zaintzen Pedagogia Hezkuntza Eraldatzaile baterako

Eta nola gauzatzen da zaintzen Pedagogia eraldatzailea? Puntu honetan, Guillermo Aguadoren proposamenari (2018) jarraituko diogu: handira apustu eginda, aukera bat litzateke paradigma berriarekin bat etorriko den curriculum berri bat sortzea; baina hasteko, gaur egungo curriculumei beste orientazio bat ematea litzateke beste aukera, curriculum horiek zaintzara orientatzea, *gutxienekoen proposamen* gisa. Zaintzen Pedagogiak hezkuntza eraldatzea eskatzen du. Paradigma ez-androzentrikoa, ez-produktibista eta ez-lehiakorra hartzen badugu oinarri, **helburua bada bizitzarako heztea** eta ez merkaturako, helburua bada lankidetzan, ingurumenaren zaintzan, errespetuan, genero-ekitatean, parte-hartze sozialean eta giza eskubideen defentsan heztea... orduan, *dena eraldatu behar da*. Eraldaketa sakon horretarako, hezkuntza-sistema osoaren esku-hartzea behar da, eta autokritika zintzoa egin behar da maila guztietan: helburuak, metodologia, curriculuma, espazioak, ikasgaiak, harremanak, ebaluazioa, zentzu sakona, ikasleen eta irakasleen eginkizun historikoa eta haiei erantzuteko eta motibatzeko gaitasuna, gaur egun motibaziorik gabe eta sinesten ez duten hezkuntza-eremu batean parte hartzera derrigortuta baitaude. Xedea da baloratzea ea eskola bultzatzen ari ote den pertsonen garapen osoa, lurraren zaintza, genero-ekitatea eta dibertsitatearekiko errespetua, ea erantzuten ari zaien haurrek garaiotan dituzten beharrizan espezifikoei.

Gutxienekoen proposamen honetan **hainbat ikuspuntu** biltzen dira:

- **Genero-ikuspegia.** Begirada horrek identitatearen beste esanahi batzuen berri jakitera bultzatzen gaitu, sexualitate biologikotik abiatuta. Gaur egun gizona edo emakumea izatea zer den, eta pertsona bakoitzak izate hori nola bizi nahi duen pentsatzera garamatza. Erne egotera, hezkuntza-testuinguruan harreman lehiakorrak, norgehiagokan oinarrituak, inor azpian hartzeko eta baztertzeko harremanak berritu ez daitezen. Hezkuntza-prozesuetatik harreman ekitatiboak eta solidarioak bideratzen ditu begirada horrek. Neska eta mutilei, gizon eta emakumeei, roletatik harago (ama/aita, bikotea, semea/alaba) bere bizitzak eraikitzeko aukera ematen die.

- **Ingurumen-ikuspegia.** Gizateria elkarren artean loturik eta elkarren beharrean dagoela ulertu behar dugu, eta ekomendekotasuna ere badela; gizarte, ekonomia eta ingurumen aldetik iraunkortasunerantz jo behar dugula,

eta norbanako eta talde gisa ardura hartu behar dugula mundu naturalean nahiz eraikian. Gizakiekiko eta bizitzarekiko (baita giza bizitzaz aparteko) kezka zintzoa izango duen kultura batean hezi behar dugu.

- **Giza eskubideen eta herritartasun globalaren ikuspegia.** Mundu bateratu batean, giza bizitza zaintzeak eskatzen du pertsona guztiok eremu global batean ditugun eskubideak onartzea, eta esparru kolektibo horretan –alegia, mundu zabalean– konpromisoa hartzea eta parte hartzea.
- **Ikuspegi holistikoa, integratzailea, emozionala eta barnekotasunari lotua.** Zaintzak eskatzen du barne mundua eta kanpokoa onartzea; begirada horrek gizakiaren osotasuna hartzen du aintzat (bizitzaren adierazpen den aldetik), bai eta bizitzaren osotasuna ere. Barne mundua zaintzea kanpoko mundua zaintzeko aukera lantzea da, guztiok baikara osotasun horren parte.
- **Kulturarteko ikuspegia.** Bizitza modu asko daude, eta elkarrekin bizitzeko eta gizaki izateko modu asko. Izateko beste modu kolektibo batzuk ezagutzea eta errespetatzea ezinbestekoa da begirada globaleko hezkuntza-proiektu bat eraikitzeko, beharrizan eta aukera globalak aintzat hartuko dituguen proiektu bat.

Zer behar du gutaz zaintzen Pedagogiak?

Sakoneko zenbait jarraibide aurkeztuko ditugu, eta hezkuntza-lanerako hainbat iradokizun proposatuko ditugu horietako bakoitzerako.

1. Zaintzak onartzea

Zaintzen inguruan modu didaktikoan lan egiteko, oinarri-oinarrizkoa da **zaintzei balioa ematea**: bizitzari eusteko ezinbesteko jarduerak direla eta jarduera horiek gabe *zaintzen krisia* sortzen dela onartzea. Beraz, berebiziko balioa dute gizarte guztietan, eta lehentasunezko lekua eman behar diegu. Horretarako, zein diren identifikatu behar da (bilatu letra-zopan!) eta zer balio duten adierazi (zenbat denbora eta energia eskatzen duten, zeri uko egin behar zaion zaintzaz arduratzeko, nola sentitzen garen falta zaizkigunean...). Eta balio horretatik sor daiteke ardura partekatua.

Ikertzen jarraitzeko baliabideak:

Ikusi, adibidez, "*La huelga de mamá*" ipuina eta horri loturiko proposamen didaktikoa, Ivana Mollok idatzitako Zaintzen iraultza lanean (2012). **"Muevete por la igualdad"** plataformak *Actúa con cuidados* kanpainaren testuinguruan eman zuen argitara lan hori.

Zaintzei balio handiagoa emateko beste modu bat da curriculumean jasotzea. *Zergatik erakusten du eskolak irakurtzen eta idazten, zenbatzen, tresna teknologikoak erabiltzen, gogoeta egiten... eta ez du erakusten janaria prestatzen, lisatzen, josten, etxe bat eramaten, landareak zaintzen, gaixoak artatzen edo doluan laguntzen? Nola planteatu behar dugu bizitzari eusteko ahalegina, eta bizitzaren hasieran eta amaieran hura errespetuz zaintzeko zeregina? Izan al gaitezke pertsona helduak eta eskudunak horiek ikasi gabe?*

Zaintzarekin loturiko jarduerak eta erlazioak ikusaraztea eta balioestea lagungarri da errespetuzko eta elkartasunezko harremanak sortzeko, norberaren burua ezagutzeko, gatazkak bortizkeriarik gabe bideratzeko, berdintasunaren kontzientzia hartzeko eta desberdintasuna errespetatzeko. Zaintzak aintzat hartzea hezkuntza ez arrazista, ez sexista, ez patriarkala, ez menderatzailea eta ez desorekatua sustatzeko bidea da.

Jarduera:

Zaintzei balioa emateko proposamen egokia da neska-mutilei etxetik kanpora erakustea, ikasketa garrantzitsuen parte direlako gure bizikidetza sozialean eta gure elkarren mendeko autonomian. Zer dakizu egiten? Zer gustatuko litzaizuke ikastea? Etxeko zer trebetasun edo zer trebetasun emozional litzateke egokia zure taldeak ikastea? Planteatu **etxeko jakinduriari buruzko tailer** bat, zure ingurunean daukazunaren arabera.

Zaintzak komunitatean parte hartzera ere gonbidatzen gaitu (taldekoa zaintzea). Inbaditu gabe, baloraziorik egin gabe eta beren beharrizanak alde batera utzita errespetuz zaintzen duten pertsonei eskerrak ematea eta haiek zaintzea eskatzen digu.

Jarduera:

Edozein dela ere gure hezkuntza-eremua, aitortza **ospatu** dezakegu: irakasleen eguna, hezitzaileen eguna, zaintzaileen eguna, sukaldarien eguna...

2. Zaintzen antolaketa soziala aztertzea

Nola egituratzen eta erreproduzitzen da gizartea? Curriculumean sartu beharreko zeregina da honako hau: kapitalismo heteropatriarkalean lanaren sexu-banaketa desorekatua azaltzea, zaintzen feminizazioa (nola iritsi garen etxe barneko eta kanpoko eginkizunak gizonentzat eta emakumeentzat banatuta edukitzera, eta nola zaintza-eginkizunak, okerren ordaindu eta araututako enpleguak, emakumeen esku geratu diren); eta banaketa bidezko eta zuzena planteatzea: gizonen, Estatuaren, enpresen eta erakundeen erantzunkidetasuna zaintza-eginkizun sozialetan.

Jarduera:

Lana sexuaren arabera banatzeari buruzko adibide komiko bat, literatura tradizionalaren iturritik datorrena, "*El marido que tenía que ocuparse de la casa*" ipuin norvegiarra da, Angela Carterrek jasoa (2016).

"Bazen behin gizon marmarti eta erretxin bat, beti tar-tar-tar zebilena, emazteak gaizki egiten zituela etxeko lanak. Hala, arratsalde batean, sega garaian, umore txarreko itzuli zen etxera, marmarrean eta maldizioka, azkazalak erakutsiz eta emazteari epelak esateko asmoarekin.

–Baina maitea, ez zaitez horrela jarri, zu gizon zintzoa zara eta... –esan zion emazte koitaduak–.Bihar eginkizunak alda ditzakegu. Ni belarretara joango naiz, segara, eta zu etxean geratuko zara etxeko lanak egiten.

Bai, pentsatu zuen senarrak, ez zegoela gaizki esana. Eta gogo onez egingo zuela berretsi zuen. Hala, biharamunean, emazte santuak sega lepagainean hartu, eta larre zabaletara jo zuen beste segalariekin, eta han jardun zuen belarra ebakitzen. Senarra, berriz, etxean geratu zen etxeko lanez arduratzeko.

Lehendabizi, esne-gantza irabiatu nahi izan zuen gurinontzian, gurina egiteko, baina tartetxo batean irabiatzen aritu ondoren, egarria sentitu zuen eta

sotora jo zuen barrikatik zerbeza ateratzera. Barrikari tapoia jarri eta txorrota barnean sartzekotan zela, zarata bat entzun zuen buru gainean: txerria zen, sukaldean sartzen. Korrika igo zen sotoko eskaileretan gora, txorrota eskuan zuela, ahal zuen lasterren, txerria zaintzeko, gurinontziarekin estropezu egin eta edukia isur ez zezan. Berandu ordea, iritsi zenerako gurinontzia iraulita zegoen, eta txerria han zegoen geldi, kurrinka eta muturka, lurrean barreiatutako esne-gaina miazkatzen. Gizona hainbeste haserretu zen, ia ahaztu egin baitzuen garagardo-barrika, eta korrika, herio batean, jo zuen txerriarengana. Atetik ateratzear zela heldu zuen, eta alde egin ez zezan, berebiziko ostikoa jo zion. Txerritxoa han geratu zen lekuan bertan, hilda bezala. Orduan gogoratu zen bat-batean txorrota eskuan zuela, baina sotora jaitsi zenerako garagardo guztia lurrean isurita zegoen, barrikatik kanpo":

Ipuinaren gainerakoa "Cuentos de hadas de Angela Carter" liburuan dago (Angela Carterren maitagarrien ipuinak), zehazki hirugarren atalean: De tontos (2016, 183-184 or.).

Jardunbide egokiak:

Eta nola egin hori curriculumetik, edukien barnetik?

Autonomia-erkidego batzuetako administrazioek, adibidez, generoari eta berdintasunari buruzko gai zehatzak jaso dituzte bigarren hezkuntzan:

Galizia: Genero-berdintasuna

Andaluzia: **Plan de Igualdad y asignatura optativa sobre cambios sociales y género**.

Gaztela-Mantxa: **Educación para la igualdad, la tolerancia y la diversidad.**

Era berean, hainbat ikastetxek berdintasun-programekin zerikusia duten unean uneko jarduerak sartzen dituzte beren programazioetan. Aukera hori osatze aldera, aipatutako eduki horiek zehar-lerro gisa jaso behar dira ikasgaietan (ikusi, adibidez, **Valentziako Unibertsitatearen proposamena**).

Estatuak indarkeria matxistaren aurka berriki onartutako hitzarmenak (alderdi guztiek aho betez onetsi zuten 2017ko uztailean), 212 neurri jasotzen ditu eta horien artean berdintasunari, genero-indarkeriari eta prebentzioari

buruzko hainbat eduki zehatz. Beharrezkotzat jotzen da hezkuntza-etapa guztietan genero-indarkeria prebenitzea, matxismoari, hezkuntza emozionalari eta sexualari, berdintasunari eta mugimendu feministaren garapen eta lorpenei buruzko edukiak jasoz **"Pacto de Estado en materia de Violencia de Género".**

Ikus dezakezunez, ekimen hauek oraintsukoak dira... baina 1995. urterako egin zen jada berdintasunari buruzko ikasgai baten proposamena **"Papeles sociales de mujeres y hombres"**.

Jarduera:

Erantzunkidetasunaren gainean gogoeta egiteko proposamena, abesti moduan: **BLAS Y BLASA (David Martín, kantautorea)**

Era berean, **jakintza patriarkala** nola mamitu den azter dezakegu. Jakintza-eredu androzentriko horren arabera, *ezagutzeko, egiteko eta jakiteko beste modu batzuk* ez dira baliozkotzat hartzen (metodo zientifikoarekin bat datorrena eta zientzia bera baino ez daude balioztatuta). Hori oso nabarmena da hezkuntza formalean, ezaugarri hauek betetzen dituena hartzen baitugu baliozko jakintzatzat: banaka eskuratzen dena (ez ditugu balioesten talde-jakintzak eta ez ditugu puntuatzen), neur daitekeena (kalifikazioetan) edo lehiarako eraginkorra dena (merkatu-erabilgarritasuna). Beste jakintza mota batzuk, zaintzarako garrantzitsuak (adibidez, bitartekari izaten eta entzuten jakitea, beste pertsonen sentimenduei antzematea, landareak haztea), ez dira aintzat hartzen ikasketetan aurrera egiteko. Alor honetan, *Hegoaldeko epistemologia*k ikuspegi kritikoa eskaintzen digu: jakintza ez da soilik hegemonikoa, gure paradigmaren arabera jakintzatzat adostu duguna; badira beste jakintza-modu garrantzitsu batzuk giza bizitzarako.

Zer esan nahi dugu "eredu androzentrikoarekin"? Gaur egungo curriculumak, ikasgaietan banatuta dagoen moduan, bere burua aski duen gizabanako eredu hau erreproduzitzen du: burgesa, txuria, gizonezkoa, heldua eta heterosexuala.

Eta, gaur-gaurkoz, boterea (ekonomikoa, politikoa, akademikoa, militarra edo elizakoa) duten pertsona gehienek betetzen dituzte ezaugarri horiek. Indarrean den hezkuntzak, itxura batean, eredu hori du xede. Aipatutako gizon burges, txuri, heldu eta heterosexual horren eredu generikoaren arabera azaltzen dira historia, ekonomia, literatura, filosofia, matematika... Hori dela eta, hezkuntzak bazterketa-, indarkeria- eta estigmatizazio-estereotipoen euskarri izan diren helburu, eduki, egitura, jardun eta esanahiak mantentzen ditu oraindik ere. Diskurtsoa berdintasunaren aldekoa izan arren, sarritan eskolako jardunak desorekatuak dira.

Zaintzen Pedagogiak eredu hori berrikustea proposatzen digu, ikasteko eta transmititzeko beste modu batean pentsatzeko, beste curriculum bat taxutzeko, eta, beraz, jakiteko, antolatzeko eta ebaluatzeko beste modu bat zehazteko. Horrek eskatzen du hezkuntzan indarrean diren balio kapitalistak onartzea eta salatzea: indibidualismoa, lehiakortasuna eta lehena iristen dena, gehiago duena, denbora aprobetxatzen duena edo aurretik jartzen dena hezkuntzan saritzea... bizitzari eusteko balio handiagokoak izan daitezkeen beste jarrera eta jardun batzuk baloratu beharrean, hala nola lankidetza, elkartasuna eta erantzunkidetasuna.

Beraz, curriculuma aldatzeak **ebaluazioa** berrikusi beharra dakar: ebaluazioari buruzko galdera handi bat dugu hezkuntza-sistema formalean, eta hezkuntzaren helburuekiko sormen eta zintzotasun handiz jokatzea eskatzen digu horrek. Izan ere, azken-azkeneko erabakia kalifikazioak badu, banakako lehiaren eta bazterketaren logikari jarraitzen diogu. Zertarako balio du ebaluatzeak? Zer ekarpen egiten digu? Hori al da egin beharrekoa? Bizitza ardatz hartzeari buruz ari bagara, zertarako ebaluatu behar dugu zenbakien arabera kontzeptuak eskuratzea? Zentzurik badu "kalifikazioak jartzeak"? Zer da **baloratu** behar duguna, eta nola egin dezakegu modu ez produktibista, ez indibidualista eta baztertzailean? Nola utz diezaiokegu ikasleak epaitzeari eta zigortzeari, hala diziplinaren nola ikasketen alorretan, eta horren ordez, nola bila dezakegu ikaskuntza, konpromisoa eta ahalduntzea? **Zein da irakasleen lekua eta agintea?**

Ikertzen jarraitzeko baliabideak:

Jugar y Actuar liburuan (Jolastu eta esku hartu), María Díaz eta Nicolas Ost egileek bestelako ebaluazio bat proposatzen dute: horretan, pertsonak eta taldeak, emaitzak eta prozesuak, esku hartu behar dute, eta, orobat, beharrezkoa da autoebaluaziorako konpromisoa, egiaz aurrera egiteko balioko duena. "Ebaluazio horrek, akatsen identifikazioan oinarritu ordez, bideari jarraitzeko balio behar du, alde kuantitatiboa eta kualitatiboa, biak, adierazi behar ditu, eta zer ikasketa egin diren ulertzeko balio behar du; ebaluazio horretan, curriculumeko edukiak garrantzitsuak izango dira, baina baita emozioak eta zailtasunak adieraztea ere, eta prozesuak ere kontuan hartuko dira" (2012, 82. or.). Era berean, egileek hainbat ariketa proposatzen dituzte ebaluazio hori gauzatzeko (zure arnasketa entzuten dut, zentzumen-bilketa, loreak eta erleak, biltzen duten eskulturak, gogoetarako zirkuluak).


Bestalde, Javier Herrero (2016) Ojo de Agua proiektuko kideak dio ebaluazioa alferrekoa dela ikasketaren egiazko balorazioa egiteko; areago, berrikuntzaren, sormenaren eta bilaketarako gaitasunaren inhibitzailea dela azpimarratzen du (ondo jakina denez, estresa eta herstura sortzen duen elementua izateaz gain). Nabarmentzen du, María Acaso aipatuz, ebaluaziorako hezkuntza dugula, eta ez ikasketarako hezkuntza. Ebaluazioak, Herreroren hitzetan, *ez du bestearekiko errespeturik*, epaitu eta konparatu egiten duelako, eta bere baitan duen balioa ukatu egiten diolako. Eta horren ordez, hezkuntza arloko bestelako esku-hartze bat proposatzen du: "egintza ekologiko" bat: onartzea ikasketan ez dakigula zein diren arauak eta ezin ditugula isolatu aldagaiak. Hala, proposatzen du hezkuntza konfiantza giroan ikasleari laguntzeko ekintza izatea, eta ikasketaren ikuskera ardatz bertikaletik (irakasleak/ikasleak) ardatz horizontalera pasatzea (ikasten duen pertsonaren barnetik kanpora).

Idea horren alde egiten du Vázquezek ere (2009) *La educación y la ética del cuidado en el pensamiento* Nel Noddings-en tesian: "Hori dela eta, irakasle lanean, alaitasuna, pentsamendu sakona eta gero eta gehiago ikasteko, irakurtzeko eta entzuteko gogoa piztu behar ditugu. Eskolak, beraz, eremu zoriontsu bat izan behar du, ikasteko, irakurtzeko, pentsatzeko, eztabaidatzeko leku dibertigarri bat; eta inoiz ez du izan behar derrigortzeak eta kontrol erako ebaluazioak sor ditzakeen beldur eta sufrimenduen eragile. Hobeto ikasten dugu

zoriontsuak garenean edo ikasketa-prozesuetan agertu ohi diren zailtasunak gainditzeko eginiko ahaleginari zentzua aurkitzen diogunean".

Jarduera:

Hemen zer pentsatua ematen duen Jimmy Liaoren ilustrazio bat (2012):



Aipatzen ari garen ideia horiei loturiko aldaketa batzuk gertatzen ari dira gaur egun *Konfiantzaren pedagogia* izeneko korrontearen ildoan. Rafael Cristóbalen proposamenari jarraitzen dio korronte horrek, eta ikastetxetan hezkuntza, bizikidetza eta hezkuntza-komunitatean parte hartzeko modu bat, espazioa eta denbora kudeatzeko eta ikasketa aktiborako bestelako prozesu bat ezarri nahi ditu, printzipio hauek oinarri hartuta: konfiantza, hezkuntzaren eraldaketa, komunitate-loturak, zaintza eta sena, eta etologiaren, konduktismoaren, neurozientziaren eta sozio-konstruktibismoaren ekarpen teorikoak kontuan izanda (InteRed, 2018, hainbat esperientzia martxan direla).

3. Zaintzen krisia salatzea

Desoreka bat dago zainduak izateko beharraren eta zaintzarako denborarik, espaziorik eta zaintzaren aitortzarik ez izatearen artean, eta desoreka hori oztopo nabarmena da bizitza osasungarrirako. Zaintzak gutxiengo baten eskura dauden baliabideak dira, modu pribatuan ordainduak, eta ez eskubide kolektibo bat. Baina ezin dira luxu bat izan, ezta merkatuaren esku utzitako zerbitzu bat ere. Beharrezkoa da non eta nola urratzen diren jakitea, dagozkion eskubideak betetzeko exijitzea, eta geure burua prestatzea gizartea pertsonen eta ingurumenaren zaintzara bideratzeko eta antolatzeko.

Jarduera:

Zaintzen krisiak bete-betean eragiten die hezkuntza-erakundeei. Esparru horretan, garrantzitsua da gure buruari galdetzea nola lagundu dezakegun zaintzen krisia konpontzen, gizabanakoek kalterik ez jasateko. Zer egiten dute familiek eskolarik ez dagoen egunetan, eskolako oporretan, egokitzapen-aldietan edo eskola-ordutegi intentsiboko aldietan? Nola uztartzen dira, zaintza, eskola-egutegia eta laneko eskakizunak? Zer legedi behar dugu bizitzari eta bizitzeko beharrizanei erantzuteko? Eta, bien bitartean, nola antolatzen ditugu baliabideak eta nork laguntzen ditu diruz? Ordutegi zabaldua, eskolaz kanpoko jarduerak, hiri-kanpalekuak, aitona-amona zaintzaileak... Zer erantzun irudimentsu eman diezaiekegu komunitate moduan, eta ez modu pribatuan soilik, egoera horiei?

GUZTION BEHARRETAN PENTSATZEKO: Idatzi 3 eszenako gidoi bat beharrizan pertsonalen eta lan/ikasketen artean sortutako gatazka-egoera bati buruz. Ez da beharrezkoa gidoian soluzioa jasotzea; hobe da horri buruzko galderak sortzeko baliagarri izatea. Ondoren, taldean, bilatu istorioari amaiera emateko modua.

4. Esplotazio egoeran dauden zaintzen kate globalak salatzea

Salatu egin behar dira emakume atzerritarrek beren gain hartzen dituzten zaintzak, gero haien familiek hartzen baitituzte beren gain haiek utzitako zaintzak (etxeko zerbitzua), eta zaurgarritasun- eta esplotazio-baldintzetan egiten dute lan. Zaintza-lan horiei loturik, normalean, desoreka eta bazterketa soziala izan ohi da.

Ikertzen jarraitzeko baliabideak:

Ikusi, adibidez, **"Las empleadas domésticas, el eslabón más débil del mercado"**

Beste adibide bat *Una experiencia intensa* ipuina (Esperientzia bizi bat), eta horren proposamen didaktikoa dira, *La revolución de los cuidados* (Zaintzen iraultza) lanean (Mollo, 2012).

Eta hor ditugu Bidez Bide elkartearen ikus-entzunezkoak ere, nazioz gaindiko amatasunari eta zaintza-kate globalei buruz: "En Tránsito" (Iraganbidean) **aurrerapena Vimeon** y "Compañeras de viaje" (Bidelagunak) (dokumental hau ikusteko elkartearekin jarri behar da harremanetan, **bidezbide.wordpress.com**).

Elkarte berak bultzatutako "**Es lo que hay (Ez dago besterik)**" kanpainaren lagin bat ere ikus dezakezu, etxeko lanari eta zaintza-kate globalei buruz.

5. Gure zaintza-zorra onartzea

Zaintza-zorra esaten zaio jasotzen ditugun zaintzen eta ematen ditugunen arteko erlazioari. Oro har, gizonek zaintza gehiago kontsumitzen dute ematen dutena baino, eta emakumeek justu kontrakoa. Enpresak, Estatua eta gizartea zaintzen zorretan daude emakumeekin. Mendebaldeko munduan, zorretan gaude gure aurreko belaunaldiekin (bizitzara ekarri eta hazi gaituzten pertsonekin) eta zorretan nazioartearekin, zapaldutako herri eta gizarteekin, haiei esker bizi baikara bizi garen moduan. ZORRA hezkuntza-tresna bat da, kontzientzia hartzeko eta ardura geure gain onartzeko. Zorretan gaudela onartzea

lagungarri izan daiteke gure ardura bideratzeko eta ardura hori betetzen ari ez direnei (oro har, gizarteko gizonezkoak, erakundeak, enpresak, Estatua...) bete dezatela eskatzeko.

Jarduera:

Zure historian begiratzen baduzu, nork zaindu zaitu? Zeinek zaintzen zaitu gaur egun? Munduko zer lekutatik ari zaizkizu iristen zure eguneroko bizitza egin ahal izateko materialak eta produktuak?

Egin uztai bat paper zuri zerrenda batekin, eta jarri zure izena bertan. Egin kate bat kolore gorriko papera erabiliz zaintza ematen dizuten pertsona edo taldeekin (pertsona edo talde bat katebegi bakoitzean). Kate horrek balio diezazuke zure barnean eskerrak emateko jaso duzunagatik. Zenbait zaintza erraz bereiz ditzakezu eta zuzenean adieraz diezaiekezu esker ona zaintza horiek ematen dizkizuten edo eman izan dizkizuten pertsonei. Beste batzuk ez, pertsona horiek ez dituzulako ezagutzen edo ez daudelako zuregandik gertu, baina sinbolikoki egin dezakezu, paperezko kate horrekin.

Jasotzen dituzun edo jaso izan dituzun zaintza horiek guztiak dira eusten zaituzten katea. Ardura horretatik zure buruari galde diezaiokezu: Nola eta zeini eman diezaioket nire zaintza orain?

Egin kolore berdeko kate bat, katebegi zuria erdian, gorriaren beste aldean utzita, zaindu ditzakezun pertsona edo taldeekin. Haietako gehienak ez dira izango zaintzen zaituztenak edo zaindu zintuztenak, baina horren pareko zaintza eman diezaiokezu beste pertsona batzuei, zaintzen kateak jarrai dezan.

Zure lan-eremuan, nola garatzen da zaintzen katea? Zer euskarri du zaintzaren ardurak? Egin al dezakezue kate kolektibo bat? Ba al dago ardura eska diezaiokezun erakunderik edo pertsonarik? Nola eska diezaiekegu ardura hori?

Kontuan izan behar dugu zaintza-harreman asko *asimetrikoak* direla: jasotzen ditugun zaintzak direla-eta, zorretan gaude, baina ezin dizkiegu zaintza horiek eskaini eman zizkigutenei (haurrak haztea, adibidez, aurrekoengandik ondorengoetara transmititzen da beti; nire aurrekoek hazi nautelako hazi ditzaket nik beste pertsona batzuk, baina ez ni hazi nindutenak). Zaintza hori dela-eta, gizateriarekin zorretan gaude, eta horrek gure konpromisoa eskatzen du alde kolektiboarekin.

6. Zaintzaren etika justiziaren etikarekin uztartzea

Zaintzaren etika Carol Gilliganek formulatu zuen (1982), L. Kohlbergen justiziaren garapen moralaren ideia kritikatzeko eta horren kontrakarrean. Kholbergek, garapen moralaren eboluzio-prozesua ikertzen ari zela, hainbat aldi formulatu zituen, haurtzarotik heldutasunera, eta horietan justizia eta zuzenbide kontzeptu gero eta unibertsalagoak nola geureganatzen ditugun azaldu zuen. Gizonezko gazteekin soilik egin zuen ikerketa, eta urte batzuen buruan, Carol Gilliganek emakumeen arteko balio-sistemei buruzko ikerketa batekin erantzun zion. Ikerketa horrek zaintza du ardatz. Hemen, ordea, uste dugu osagarriak direla: zaintza justiziarekin batera.

Justiziaren etikak giza eskubideen esparru orokorra du oinarri, eta funts etiko partekatu, unibertso, inpartzial, arrazional eta eztabaidaezina. Esparru onartua izan arren, oraindik ez da bete, eta gutxienekoen egoera batean gaude (horrek gutxienez erreala izan beharko luke gizateria guztiarentzat). Baina, horrez gain, zaintzaren etika ere behar dugu: naturari eta gizateriari min egin soilik ez, zaindu ere egin behar dugu; banakoen eskubideak soilik ez, kolektiboak ere bai, eta horien artean honako hauek: zaintzea, zainduak izatea, zaintzeko obligazio (indibidualik) ez izatea, esplotazio-egoeran ez zaintzea (zaintzailea baldintza bidegabeetan ari bada, ez dira gutxienekoak betetzen); gizateriaren eskubideak soilik ez, beste izaki bizidun batzuenak ere bai, harmoniazko harremanetan eta ez esplotazio-harremanetan.

Justiziaren printzipio handiak, arrazoibide abstraktuaren berezko printzipioak, ezinbestekoak demokrazia heldutasunera iritsiko bada ("ez duzu hilko"), pertsonen beharrizan jakinen zaintzarekin orekatu behar dira; dibertsitatearekiko enpatiaz eta bestea ulertuz ("ez duzu inor hiltzen utziko[3]"). Horixe da herri-

3 Horrelaxe formulatzen du Jose Luis Sotok, SAFA Irakasleen Prestakuntzarako Unibertsitate Zentroa (Ubeda)

tartasun berri baterako etika iraultzailea: barne-biltzailea, dibertsitatea errespetatuko duena eta giza duintasuna eta eskubide-berdintasuna onartuko dituena.

Hau da, justiziak enpatia izan behar du lagun (bestela gizatasunik gabea litzateke), eta zaintzak ezin du zapaltzailea izan zaintzailearentzat (besteen beharrak soilik hartzen badira kontuan eta zaintzaileak ez badu eskubiderik, orduan gertatzen da hori; kasu askotan, etxeko enpleguan).

Zaintzea hautu etiko bat baino gehiago da. Izateko modu bat eta existitzeko aukera da: ez da bulkada soila, existentzia beti dago jokoan. Zaintzen jakitea **gizateriaren beharrizana da**: *zaintzen ikasten dugu edo gureak egin du*. Baina ez gara jabetzen beharrizan horretaz, ez bizitzan ez hezkuntzan.

Zaintzeko erabakia hartzen duena erabateko subjektua da: bere buruarekiko eta besteekiko, naturarekiko eta gizartearekiko kontzientziarekin, arduratsua, zentzuzkoarekin askatasunez konpromisoa hartzea erabaki duena. Zaintzeak egiaz bestearen eta norberaren alde jokatzea dakar, elkarren arteko lotura hori onartuz. Etika horrek hauspotu egiten du justiziaren zentzua, eta arduarazko kontzientziatik eskubideen bilaketara bidea egiteko aukera ematen du, *ez hiltzetik hiltzen ez uztera*. Zaintzen Pedagogiak sortzen ditu beharrezko estrategiak, baldintzak eta aukerak zaintzaren betebehar etikoa mugiarazteko.

Baina zaintzak ezin dira izan horiek arbuiatzen dituzten pertsonei ezarritako betebehar bat; ezin dira izan gainetik ezarritako bizitza-proiektu bat, zaintzailearen beharrizanak kontuan izan gabe. Zaintza-lanak errepikakorrak, nekagarriak eta gogorrak dira. Askatasunez eman behar dira, konpromiso horren hautua norberak eginda, gizarte-antolaketaren erdigunetik, ekitatez banatuta, ezinbestekoak direlako. Komunitateak hartu behar ditu bere gain, eta ez gizabanako isolatuek. Eta egunero zaintza-lanetan ari direnek, aldi berean, zainduak izatea behar dute.

Jarduera:

Sentitu al zara egoera edo uneren batean zaintzera behartuta? Ba al duzu inor gertu egoera horretan? Ba al dago ezartzen zaizun zaintzarik edo zuk beste pertsona bati ezarritakorik? Nola bizi da hori? Zer gertatzen da ezin dugunean aukeratu ez zaintzea?

Nola bidera dezakegu betebehar moral hori belaunaldi gazteagoetara zama itogarri bat izan gabe? Nola gonbidatu dezakegu jendea zaintzera, gizatiartu egiten duelako, geure burua zaintzera behartu gabe, nahiz eta horretara emanak bizi?

Hona hemen zaintzeko eskabide sotil bat: **Cuídame** (Pedro Guerra eta Jorge Drexler)

Literatura tradizionalean zaintzeko hautu eta balioaren adibide ugari daude, heroiak aukeratutako bidearen mugarri gisa. Sarritan, protagonistak laguntza edo zaintza eskatzen duen norbaitekin egiten du topo bilaketaren hasieran, gehienetan adineko pertsona batekin. Hark egur-zama bat eramatea, baso bat ur ematea edo zulo edo tranpa batetik ateratzea eskatzen dio. Ez badio laguntzarik ematen edo entzungor egiten badio, ezin du bilaketa horretan aurrera egin. Aldiz, egiten badu, trukean laguntza magiko edo ahaltsuren bat jasotzen du bere bideari jarraitzeko.

Elkarrekikotasun horren adibide da "Erleen erregina" ipuina, Grimm anaiek jasoa. Hiru anaia dira, eta bi zaharrenek arbuiatu egiten dute txikia; honek, ordea, indarkeriatik salbatzen ditu inurriak, ahateak eta erleak, eta ondoren, animalia horiek lagundu egingo diote bere helburuak lortzen.

7. Alde pertsonaletik kolektiborako zaintzan haztea. "Alde pertsonala politikoa da"

"Alde pertsonala politikoa da" esapidea feminismoaren testuinguruan sortu zen 1970eko hamarkadan. Esaldia jatorriz Kate Milleti egozten zaio, baina Carol Hanischek egin zuen ezagun, titulu hori eman baitzion bere liburu bati. Berak, ordea, Firestone eta Koedt editoreei aitortzen die izenburua. Bizitza pribatuak eremu publikoan duen eraginaren garrantzia adierazten du goiburu horrek. Alde horretatik, hezkuntza ere ekintza politikoa da. Ekintza pertsonal eraldatzaileen bidez eraldaketarako hezkuntza mamitzen da. Aldatzen eta antolatzen goaz mundua bera aldatzen joan dadin. Hori horrela izanik ere, ezin dugu ahaztu botere-talde handiek eta alde kolektiboaren gainean hartutako erabakiek duten erantzukizuna. Ez gara kontsumitzaile hutsak, ez eta gai globalen erantzule indibidualak ere. Zaintzen Pedagogiari loturik doa herritartasunerako hezkuntza, eta hezkuntza horrek kontzientzia politikoa eta soziala bildu behar ditu bere ekintzetan: manifestatzea, taldean biltzea, protestatzea, aldarrikatzea, funtsezko eskubideen aurka jokatzen duten gobernuak kanporatzea.

Alde pertsonalaren eta politikoaren arteko erlazioak BOTEREari eta boterean beste era batera hezteari buruz hausnartzera garamatza: nola sortu boterea hezkuntza-komunitatean gauzak beste modu batera egiteko. Xedea da era bateko erlazioak (menderakuntza eta lehia) aldatzea beste era batekoak aurkitzeko: egiteko, izateko eta errazteko boterean, botere kolektiboan eta barne boterean hazteko aukera ematen dutenak. Eta horretarako, ezinbestekoa da sentimenduak eta emozioak, harremanetarako gaitasunak, emakumeen esperientziak, zaintzari loturiko jakintzak balioestea. Bestelako eskola-kultura bat da. Honi esaten diogu **ahalduntzea**.

Era berean, horrek eskatzen du androzentrismoa eta harreman pedagogikoen bertikaltasuna bertan behera uztea, eta beste era bateko aginte batekiko konpromisoa hartzea. Horrek zalantza handia sortzen du irakasleen artean, aginte-sistema bertikal batean heziak izan garelako, eta orain... orain zer? Zer eta nola egin behar dugu orain? Ez al dugu irakasteko ezer? Ezin zaigu entzun eta errespetatu?

Bai, jakina. Entzutea, errespetua eta harremana behar ditugu, nola ez ba. Harremana ikasleekin, laguntza ematen diegun pertsonekin. Izan ere, hezkuntza, oroz gain, erlazioa da. Baina batzuen eta besteen posizioak aldatzen ari gara, eta aldaketan ez dakigu ondo nola zaindu elkar...

Tira, zalantzarik gabe helduoi dagokigu lehen urratsa ematea. Lehenak izatea entzuten, zaintzen eta errespetatzen. Eta, horretarako, gure neurrian, zaindu, errespetatu eta entzun gaitzaten uztea ere badagokigu... ez gure ikasleek, baizik eta gure ingurune pertsonaleko eta laneko pertsona helduek.

Ikertzen jarraitzeko baliabideak:

Horri buruz pentsatzen laguntzeko begirada sistemikoa eskaintzen du Marianne Franke-Grischek (2012) “Eres uno de nosotros” (Gutako bat zara) liburuan (Alma Lepik). Irakasle lanetan urte askotan izaniko esperientziak eta ikuspegi sistemikoak ikaskuntza-prozesuari eginiko ekarpenak azaltzen ditu Franke Grischek liburu horretan.

Prozesu horren beste zati bat da nola **hezi gatazkarako eta desberdintasunerako**. Bizikidetzak berezkoa du gatazka. Gure haurrak aniztasunean eta berdintasun-baldintzetan errespetuz bizitzeko hezi beharko ditugu; loturak eta harremanak berreraikitzeko akordioak eta estrategiak landu beharko ditugu; bertan goxo egoteari utzi eta besteekiko kezka izango den leku aktibo batera jo beharko dugu.

Askatasunerako eta demokraziarako eskola da; bertan beren ikasketa-prozesuaren aktoreak egotea da xedea, eskubidedun subjektuak, bizitza pertsonal eta sozialaren egileak. Analisia, kritika, elkarrizketa, sentimenduen adierazpena, diferentziak onartzea eta eskubide-berdintasuna onartzea oinarrian direla. Norberaren eta besteen eskubideak zein diren jakitea eta errespetatzea. Egiaz **baliatu eta gauzatutako** demokraziaz ari gara, beste eremu batzuetara eraman ahal izateko. Justizia, elkartasuna eta enpatia bizitzeaz, horiek ikasi ahal izateko. Barnetik kanpora, barnekotasunetik, norbanakoen interes eta beharrizanetatik ekintza globaletara. Horri buruzko ezaguera gehiago jaso ditzakegu Ikasketa-Zerbitzuak jorratzen dituen metodologien moduluan.

8. Gorputz, emozio, kognizio eta erlazioen aldeak integratzea

Integrazio hori behar dugu errespetuz, konfiantzaz eta osotasunez erlazionatzeko. Gaur egun, korronte pedagogiko asko saiatzen dira pertsonaren lau maila horiek bateratzen, hazi eta heldutasunera iritsi ahal izateko. Zaintzen Pedagogia ere horretan ahalegintzen da.

Gorputza

Zaintzen Pedagogiak hezkuntzaren... eta pertsonaren ikuspegi holistikoa aurkezten digu. Garena izan ahal izateko gure burua zaintzeak eskatzen du gure burua garen horretan osotasunean onartzea. Hezur-haragizko izakiak, izaki gorpuzdunak beste gorputz batzuen erdian, izate material kontziente bat partekatzen, energia-trukeko harremanetan, hori baita bizitzak daukan forma.

Horrenbestez, hezkuntzak ezin du bere planteamenduan gorputza alde batera utzi. Hezkuntzako lehen mailetan, bereziki Haur Hezkuntzan, argiago dago, baina prozesuak aurrera egin ahala, gorputza garrantzia galtzen doa eta adimenarekin loturiko jarduerak lehenesten dira. Goi-mailako hezkuntzak baztertu egiten du gorputza heziketarako lekua izan daitekeenik. Nolabait hezkuntza ez-formalean berreskura dezakegu gorputzaren alderdi hori, jolasarekin edo

adierazkortasunarekin loturiko metodologiak proposatzen ditugunean. Baina edozein dela ere gure hezteko modua, kontuan izan behar dugu gorputza, gorputz-kontzientzia eta gorputz-harremana zaintzaren osagai modura.

Lan-sistema asko daude horretan lagundu diezaguketenak. InteReden sakon landu dira antzerkia eta jolasa. Badira zaintzaren pedagogian lagungarri diren beste aukera batzuk ere, nahiz eta ez ditugun dokumentu honetan garatuko:

- Masajea eta *Reiki* (Errespetuzko kontaktua eta energia-transmisioa).
- Biodantza, mugimendu adierazkorra, dantzaterapia, kontenplaziozko dantza, munduko dantzak, bake-dantzak.
- Erlaxazioa eta irudikatzea. Arnasketarekin eta isiltasunarekin eginiko ariketak. *Mindfulness* eta meditazioa. Hauen harira, nahiz eta ez berez gorputz-teknika bat izan, barneratzea ere landu daiteke *mandalen* bidez.
- Musika. Kantua, konposizioa, abestiak sortzea. Musika-terapia.

Emozioa

Emozioa, *tradizioz emakumeei egotzia*, jakintza pertsonal eta kolektiboaren iturri funtsezkoa da bizikidetzarako, zaintzarako eta garapen osorako. Arestian ere aipatu dugu beharrezkoa dela emozioen mundua aintzat hartzea, balioestea eta heztea; norberaren ezagutza, adierazpena, entzutea, enpatia eta prestasuna garatzea. Metodologien moduluan hainbat proposamen aurkituko ditugu, Arte-terapiaren, antzerkiaren eta jolasaren bidez. Hemen ere zenbait aipatzen ditugu: gorputzarekin eginiko lana, garbiketa eta hizkuntza, zirkulu lotesleak, ipuinak.

Kognizioa

Pertsona osoak eta zoriontsuak izateko, politikoki eta moralki herritar eta subjektu aktibo izateko eta geure bizitzen sortzaile izateko ikasi egin behar dugu, eta ikasi beharreko hori ikasteko baldintzak bilatzen ari gara. Horretarako, jakintza emantzipatzailea, osoa, diziplina-artekoa eta holistikoa behar dugu. Jakintza horrek bermatu egin behar du bizitzaren iraunkortasuna; norberaren eskubideak zein diren jakitea eta duintasun pertsonalaren kontzientzia barne-bildu behar ditu, eta zaintzeko eta maitatzeko ardura izan behar du ardatz. Eta aukera eman behar digu irabazi-irabazi hautuari bide emateko (eta ez irabazi-galdu hautuari, transakzio horietan hezi izan baikara orain arte).

Harremanen alderdia

Harreman afektibo osasuntsuak, lotura seguruak bilatzen ditugu. Hezkuntza, oroz gain, erlazioa da. Errealitatea erlazioa da. Zaurgarritasunean eta elkarrekiko behar horretan zainduak eta onartuak izatea behar dugu. Besteen epairik gabeko onarpena behar dugu, kide izatearen kontzientzia eta arau eta erregela, balio eta esanahien mundu bat, errespetua oinarrian dela. Horretarako, beharrezkoa da:

A. Jarrerak lantzea: eredu izatea, *gertatzea nahi dugun hori izatea*. Toleranteak, zintzoak, zaurgarriak eta enpatikoak izatea. Nork bere burua zaintzea eta hurbil dituenak zaintzea.

- Zer egin dezakezu irakasle gisa zure burua zaintzeko? Zertan zain ditzakezu zure taldeak? Zertan ari zara zaintzen jada?
- Zer behar duzu zaintzen zaituztela sentitzeko?

Hausnartzeko:

¿Y, A TI QUIÉN TE CUIDA?

Luís Guitarra

Y a ti ¿quién te cuida?
Y a ti ¿quién te espera?
Y a ti ¿quién te abraza?
¿Quién siembra en tu huerta?
¿Quién guarda tu puerta cada madrugada?
¿Quién pasa contigo las horas más bajas?
¿Quién sopla en tu herida y cose tus alas?
¿Quién reza tu nombre y alumbra en tu alma?
¿Quién canta en tu oído y nunca se cansa?
Y a ti ¿quién te abriga?
Y a ti ¿quién te cuenta?
Y a ti ¿quién te extraña?
¿Quién trenza tu pelo?

¿Quién siega tus miedos y te los espanta?
¿Quién pasa contigo las horas más bajas?
¿Quién sopla en tu herida y cose tus alas?
¿Quién cura tu risa? ¿Quién cubre tu espalda?
¿Quién sueña tu ombligo y anhela tus playas?
... y sufre un poquito cuando tú te marchas.
Y a ti, ¿quién te cuida? Y a ti, ¿quién te alienta? Y a ti, ¿quién te salva?

B. Gaitasunak lantzea: parte hartzea, bestearen lekuan jartzea, diferentziak onartzea, erabakiak hartzea, gatazkak hitz eginez konpontzea, bitartekari izatea eta negoziatzea. Gaitasun horiek eskuratzeko beharrezkoa da jakitea, nahi izatea eta ahal izatea... eta horiek eginez ikasten dira.

Zaintza, funtsean, *harremana* da. Gaitasunak lantzeaz ari garelarik, harreman mota jakin bati eusteko sentiberatasuna eta ahalmena garatzeaz ari gara; harreman ez simetrikoak baina bai elkar onartzekoak, horiek dira eutsi beharrekoak; hau da, **elkarrekikotasun**-harremanak. Horretan oinarrituta, Victoria Vázquezen azalpenari jarraituko diogu. Hezkuntza-harremana, adibidez, harreman asimetrikoa da. Hala ere, harreman horretan, bestelakoetan bezala, bada aukera *elkarrekikotasunean* zaintzeko: horrek esan nahi du zainduak diren pertsonek horren kontzientzia izan behar dutela eta hori adierazteko gaitasuna izan behar dutela, zainduak direla jabetu behar dutela. Hala, egileak nabarmentzen duenez, "gaur egungo eskola-egituren ondorioz, eta batez ere bigarren hezkuntzan, irakasleek ezin dute eman ikasleek behar duten arreta arduratsua eta banakakoa. Arreta harkorra funtsezkoa da harreran oinarritutako zaintza-harremanak sortzeko eta mantentzeko; hau da, harreman horiek ezin dira oinarritu norberak mundua ikusteko eta sentitzeko duen proiekzioan" (Vázquez, 2009b). Alegia, zaintzan oinarritutako hezkuntza-harremanetan beharrezkoa da zainduak diren pertsonek sentitzea harrera egiten zaiela, diren moduan onartuak direla, hezten dituen pertsonaren aldean desberdinak baina hura bezain errespetagarriak eta baliotsuak. Egileak Nel Noddingsek proposatutako kontzeptu bat aipatzen du, eta zaintza-harremanetarako funtsezkoa dela nabarmentzen du: *engrossment* delakoa. Jarrera hori enpatia baino harago doa; izan ere, beste pertsonaren lekuan jartzea ez ezik, pertzepzio horren

eragina jasotzea eta eragin horren bidez aldatzen uztea eskatzen du; ez erantzutea norberarena beste pertsonarengan proiektatuz, baizik eta "zaintzen, ikusten eta errealitatea sentitzen duenak bestearen begietatik egitea" (Vazquez, 2009b, 84. or).

Jarrera hori senezkoa da gehiago analitikoa baino, xedea ez baita beste pertsona manipulatzea edo baldintzatzea, haren proiektuan bidelagun izatea baizik.

Hausnartzeko:

Zaintzen duen pertsonak ez du bere errealitatea proiektatzen zaintza jasotzen duen pertsonarengan; aitzitik, bestearen errealitatea hartzen du berea sentitzeko aukeratzat eta, horretan oinarrituta, haren mina leuntzeko ahalegina egiten du, jasanezina ezabatzeko, mina murrizteko edo ametsa ahalbidetzeko ahalegina. Hau da, zaintza-harremanen bereizgarriak dira zaindutako pertsonarekiko arreta harkorra eta haren interesekiko motibazioa (Vázquez, 2009b, 83. or.).

Sarritan gertatzen da, adibidez, irakasleek esatea zaintzen dituztela ikasleak eta, egia da, berez kezkatzen dira eta arduratzen dira haietaz, baina ikasleek beren ondoeza adierazten jarraitzen dute: "Ez gatzaizkie axola". (...) Oro har, ikasleek arrotz sentitzen dute eskolako lana, haiei erakusten saiatzen diren irakasleengandik bereizita eta noraezean, nahasgarri eta aurkakotzat hautematen duten mundu batean. Ikasleek ez dute sentitzen hezkuntza-harremanean parte hartzeko harrera eta gonbitea egiten zaienik; hau da, ez dute zaintzarik jasotzen eta zaintza-harremana ez da osatzen (Vázquez, 2009b, 89. or.).

Zaintza-harremana osatzeko, zaindutako pertsonek gai izan behar dute zainduak direla jabetzeko eta hori adierazteko. "Zutaz arduratzen eta kezkatzen den pertsona beste modu batera hartzea da kontua" (Vázquez, 2009b, 91. or.). Gainerakoan, zaintza nekagarria gertatzen da eta halako higadura sortzen du zaintzaz arduratzen den/diren pertson(ar)engan, *burnout* esaten zaion sindromea edo antzeko ondorioak, psikologikoki kaltegarriak. "Egoera hauetan, zaintzaileek ez dute ordainsaririk jasotzen beren jardunagatik, ezgai sentitzen dira, egiten duten ahalegina izugarrizko indar-galeratzat hartzen dute eta erre-

ta bukatzen dute" (Vázquez, 2009b, 92. or.). Ekintzak behin eta berriro egin beharra, etengabe prest egon beharra, zereginak maiz alferreko izatea eta harremanaren asimetria zama eramangaitza gerta daiteke zaintzailearentzat. Hori dela eta, egiazko zaintza-harremana joan-etorriko zirkuitu bat da, eta zirkuitu horretan, ematen duen pertsonak jaso ere egiten du, zaindutako pertsonaren edo taldearen sentiberatasuna, onarpena eta aitortza baldin badauzka. Erantzun horrek erraztu egiten du konpromiso morala eta eutsi egiten dio loturari. Aurreko lerroetan aitortzari eta ikusarazteari buruz aipatu dugun guztia beharrezkoa da ez soilik hezkuntza-politika gisa, baita harremanak berregiteari begira ere.

Baita hezkuntza-harremanetan ere: ikasleek *ardura* dute irakasleei zer beharrizan duten adierazteko, horrek ematen baitie aukera irakasleei haien ikasketa- eta zaintza-prozesuan engaiatzeko.

Lanerako ideia gehiago

Espazioa. Zaintzei buruzko ikuspegia aldaketak sortzen ari da hezkuntza-**espazioa** ulertzeko moduan. Kontua ez da jada espazioa funtzionala izatea soilik; hori baino gehiago, gure buruari galdetu behar dioguna da zertarako izan behar duen *funtzionala* espazioak eta zeren zerbitzura antolatzen dugun hezkuntza-espazioa.

Espazioa antolatzeko zenbait irizpide aipatuko ditugu hemen

1. **Eskuragarritasuna.** Nola erraztu pertsonei hezkuntza-espazioan mugitzea, erabakiak hartzea, askatasunez jardutea eta erlazionatzea. Ez gara ari *eserita geratzeko* hezkuntza bati buruz, baizik eta jarduera batetik bestera harmoniaz pasatu ahal izateari buruz. Hainbat ikastetxe ari dira *konfiantzaren pedagogia* sistema txertatzen, eta hormak botatzen ari dira espazio irekiagoak izateko eta erabilera anitzagoa eman ahal izateko. Eskola batzuetan espazio biribilak sortu dituzte biribilean errazago lan egin ahal izateko, edo eremu garbiak, mugimendua, aldaketa, taldekatze modu desberdinak errazteko. Hezkuntza-lan batzuek jolastokia beste erabilera batzuetarako baliatzea planteatzen dute, espazio partekatuetan genero-berdintasuna errazteko (**Ondarroako Zaldupe Eskola Publikoan Hezkidetza arloan izaniko esperientziaren sistematizazioa**, InteRed, 2018).

2. **Estetika.** Garbitasuna, harmonia eta edertasuna beharrezkoak dira gure zaintzarako. Arretaz prestatutako espazio batean material egokiak, elementu artistikoak, adierazkortasunarekin eta artearekin, naturarekin eta bizitzarekin konektatuko gaituzten pizgarriak daude. Leku eder batean ari al gara lanean? Beharrezkoa iruditzen al zaigu hori? Ba al dago lorerik edo landarerik hezten dugun lekuan? Ba al dago belarrik eta zuhaitzik jolastokian, edo kanpoaldean? Bat eginda al gaude natura-ingurunearekin, edo haustura arkitektoniko bat egin dugu naturatik isolatzeko? Ba al dago urik, argi naturalik eta beste izaki bizidunik? Partekatzen al dugu espazioa beste izaki batzuekin eta ikasten al dugu haiek zaintzen?

3. Planteatu al dezakegu **zaintzarako eremu bat** izatea gure ikastetxean? Ederra litzateke espazioa, osotasunean gure zaindari izatea; giza eskalakoa izatea eta garbia egotea, ederra izatea eta guri mugitzeko eta sortzeko aukera ematea. Nola ez da ba ederra izango! Baina nonbaitetik hasi behar, eta zaintza berezietarako gune bat gordetzen has gaitezke: zaintza pertsonalen bat behar duen orok nora joan izan dezan. Isiltasunerako leku bat edo musika lasaia jarri, hausnartu, atseden hartu, masaje bat eman, koltxoi batean etzan, beste pertsona bati lagundu, besarkada bat eskatu, kandela bat piztu edo gatazka bat modu baketsuan konpondu dezakegun leku bat. **Eremu babestu bat**, behar duenarentzat.

Garbitasuna. Gure ingurune hurbila zaintzea. Nor arduratzen da lan egiten dugun, biltzen garen eta ikasten dugun lekua garbitzeaz?

Garbiketa da zereginik esker txarrekoenetako bat. Ezinbestekoa, nekagarria eta errepikakorra da. Eskala globalean, gero eta argiago dugu denon ardura dela: kutsadura eta lurrak birziklatu edo garbitu ezin duen zaborra arazo larriak dira planeta osoan. Baina, zergatik ez hasi gure ingurune hurbilaren garbiketa zaintzen?

Garbiketa inork nahi ez duen lana da, eta estatus sozial oso baxuko pertsonen esku uzten da. Hezkuntza-espazio batean, garbiketaz arduratzen direnak ez dira hezitzailetzat hartzen. Normalean emakumeak izan ohi dira eta lan funtsezko bezain ezkutuaz arduratzen dira: lokalak hutsik dauden ordutegietan, hezkuntza-komunitateko gainerako kideekin hartu-emanik gabe eta haien lanaren onuraz baliatzen diren beste pertsona guztientzat ikusezin.

Jarduera:

Hona hemen gai honen inguruko zenbait proposamen:

Aurkeztu hezkuntza-komunitateari **garbiketaz arduratzen diren pertsonak** proiektuko kidetzat. Gonbidatu ekitaldi publikoetara: aurkezpen, ate irekien jardunaldi, eskolako egun eta abarretara. eSortu ekitaldi publiko bat garbiketaren balioarekin eta garrantziarekin zerikusia duena: Garbiketaren Eguna, Garbitzaileen Eguna, etab.

Planteatu hezkuntza-proiektuan **garbiketa-produktu** ekologikoak erabiltzea, baita birziklatzea eta berrerabiltzea ere.

Jakin zenbat **zabor** eta zer motatakoa sortzen den hezten dugun lekuan. Gure hondakinen prozesuaren berri jakitea: nora doazen, zer egiten den haiekin. Gure *beharrizanei* eta horien ondorioei buruz gogoeta egitea.

Denbora-tarte batean (hiru egun, astebete, hilabete bat) espazioaren garbiketa gure gain hartzea, **eginkizun kolektibo gisa** (langile espezializaturik gabe: denok garbitzen dugu). Jarduera honekin batera hezkuntza-komunitate osoak ebaluaziorako eta gogoetarako gune bat izan behar du. Alde batetik, maila praktikoan: Zer egin beharko genuke X egunez espazioa garbi edukitzeko (komunak, jolastokiak, gimnasioak, jangela halakorik balego, sukaldea)? Zeri egin behar diogu uko eta nola antolatu behar dugu erabiltzen dugun espazioa garbitzeko? Zenbat denbora behar da horretarako, zer erritmotan garbitu behar da egunero erabiltzen den eremu bat, zenbateko ahalegin fisikoa egin behar da horretarako? Zenbat ordaintzen zaie hori egiten duten pertsonei? Eta bestetik, zentzu sinbolikoan: Zer gertatzen zaigu guztiona garbitzea egokitzen zaigunean? Zer emozio sortzen digu horrek? Prest al gaude egiteko? Zergatik? Zer adierazten dute zikinkeriak eta garbitasunak gure ingurunean? Nola har dezakegu geure gain oinarrizko zaintza hori, espazio partekatua elkarrekin zaintzeko lan hori ardura kolektiboa izan dadin? Zer egitea egokitzen zaigu, nori bere lekutik?

(Begiratu **Ghandi, de R. Attenborough**)

Hizkuntza. Nolakoa da hizkuntzaren erabilera gure ingurunean? Ba al dago hizkuntza-kutsadurarik edo -erasorik? Testuinguru batzuetan, birao eta irainen erabilera (batzuetan mehatxuak ere bai) oso sartuta dago, areago baita normalizatuta ere, oso pertsona gazteen eguneroko hizkuntzan. Hori al da gure kasua? Horrela bada, tarte bat har dezakegu kutsadura mota erasokor, ikusezin baina egiazko *hori kontziente egiteko*:

Jarduera:

Analisia: taldean erabiltzen diren *biraoen edo irainen zerrenda bat* egingo dugu. Zer esanahi dute? Zer adierazten dute? (sarritan, eduki sexistak dituzte). Zer helburu dute? Zer eragin du horiek entzuteak? Hitz horietara oso ohituta bagaude, ez gara ohartzen haien eraginaz, "ez da ezer gertatzen, normala da". Orduan, dramatizatu egin beharko dugu egoera: antzerki txiki bat egingo dugu; pertsona bati hitzetik hortzera irain eta biraoak erabiliz hitz egingo diogu, eta ondoren, nola sentitu garen adieraziko dugu, eta horrela tratatua izan den pertsonak ere nola sentitu den adieraziko du. Orduan, hala pentsatu beharko dugu: zer egiten ari gara hitz horiek erabiltzen ditugunean? Nola antolatzen dute boterea, nori egiten diote mesede eta nori ez?

Katarsia: egin dezagun *biraoen zaparrada bat* ere. Tarte batean (5 minutu, adibidez) baimena emango diegu gure buruei, denok aldi berean eta inor jakini zuzendu gabe, burutik eta erraietatik pasatako birao eta irain guztiak botatzeko, mugarik gabe. Gelditu gabe egin behar dugu ariketak irauten duen denbora guztian. Seinale bat egitean (txistu, gong, kanpai soinu bat) gelditu eta arnasa hartuko dugu. Nola geratu gara egin ondoren? Zer sentipen fisiko dugu? Nola mugitu gara? Musika lasaia jarriko dugu eta 5 minutu utziko ditugu idazteko. Zer uler dezaket orain nire emozioei buruz, hitzen atzean zegoenari buruz?

Gogoeta: Zertarako dira hitz horiek? Zer gertatzen zaigu erabiltzen ditugunean? Zer esan nahi dugu egiaz hitz horiekin? (hauxe da zatirik zailena): pentsatu noiz hitz egin duzun azken aldiz biraoka edo iraindu duzun norbait. Zerk sortzen zizun oldarkortasun hori? Esanahi askoko hitzak direnez, haietaz indarra ulertzen da beti, baina ez halabeharrez edukia. Zer esaldiren bidez adieraz dezakezu erabilitako hitzekin esan nahi zenuen gauza bera? Zer gorputz-mugimendu egin dezakezu horiei laguntzeko? Saiatu bigarren

pertsonan esaten, amorrarazi zaituen pertsonari edo egoerari zuzenduta: zer esateko edo egiteko beharra duzu?

Babesa: Nola babes dezakegu gure burua horrelako hitzak esaten dizkigutenean? Nola zain dezakegu gure burua hitz horien dardara negatiboak edo erasokorrak gugan eraginik izan ez dezan? Taldeak bere *aterki emozionala* asmatu beharko du: ariketa sinbolikoa izango da, banaka, bikoteka edo taldean egitekoa. "Energia-eremu" bat sortu beharko dugu, hitz erasokorren eragina xurgatu eta geldiarazi dezakeena. Edo bestela, *irainen zakarrontzi* bat: leku fisiko bat iristen zaigun eta guretzat nahi ez dugun guztia hara jaurti ahal izateko (adibidez, zimurtutako paperean adierazia). Beste aukera bat da *errebote-mantra* bat sortzea: erantzuteko esaldi bat, "ez dut hartuko ematen didazuna, zuretzat berriro" esan nahiko duena, eta, beharrezkoa den aldiro, hainbat modutara (ahoz, idatziz, eskuekin eginiko keinu batez, ikur batez...) errepikatu ahal izango duguna.

Laburbilduz: hitz horien azpian zer emozio dagoen araka dezakegu, emozio horiei antzeman eta gorputzarekin bide propio bat eman diezakegu (astindu, askatu, zerbait biguna jo, salto egin, etab.), edo beharra adierazi dezakegu. Modu horretara, energiaz gain, emozioaren edukia ere bideratzen lagunduko dugu. Prozesu garbiagoa da, gardentasuna bilatzen duelako (egiaz esan behar dudana esatea) eta ez anbiguotasuna (energia transmititzen dizut, baina ez dut edukia ahoskatuko).

Ondorioa: kontzientziaren bidea

Bukatzear gauden modulu honek, berez, irekiera bat izan nahi du. Zaintzen bideari zabaldutako ate bat, eta bide horrek, esan dugu lehen, iraultza dakar... serio hartzen badugu. Bide horrek hezkuntzaren gaur egungo zentzuari eta hezkuntzak mundu aldakor honetan duen zereginari erantzuna eman diezaioke; izan ere, mundu horretan, ikasi genuenak, ikasi genuen moduan, ez die erantzuten gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldien erronkei. Hala, beraz, kontzientzia hartzeko gonbidapen bat da.



Aaron Beckerren ilustrazioa (2014), Imagina (Imajinatu)

Lehenik eta behin, begirada aldaketa dago: konturatzea zaintza-lanek berebiziko garrantzia dutela bizitzari eusteko; nola historikoki emakumeek egin izan dituzten eta oraindik ere horrela egiten duten; nola Zaintza balio goren bat den eta jardun hori, berez, ekintza politiko bat den, alde pertsonala (eremu intimoan egina) eta politikoa (eremu sozialean egina) uztartzen dituen ekintza politikoa. Begirada hori akuilu bat da zaintzen krisiarekin loturiko askotariko krisiez jabetzeko. Krisi horiek guztiek bizi garen garapen-ereduaren eta antolaturik gauden sistema sozioekonomikoaren krisi orokorra osatzen dute. Akuilu bat da, halaber, gure *zaintzen zorraz* kontzientzia hartzeko: gizonek, enpresek, Estatuak eta gizarteak osotasunean emakumeekin duten zorra emandako zaintzengatik; belaunaldiz belaunaldi pilatutako zorra gure iraganean jasotako zaintzengatik; zapaldutako herriekin dugun zor historikoa haien zaintza-lanez baliatu izan garen neurrian; klase-zorra, zor etnikoa eta abar.

Zertaz gehiago jabetzen gara? Eskubideetan oinarritutako ikuspegia ezinbestekoa da gure hezkuntza-zereginean, baina Justiziaren etika ez da nahikoa ez bada Zaintzaren etikarekin uztartzen: zaintza ez da mito erromantiko bat, emakumeek eusten dutena, jardun iraultzaile bat baizik, eskubideekin errespetuz eta beharrizanekin erantzukizunez jokatzen duen etika.

Horregatik guztiagatik, gure ustez, hauxe da Zaintzen Pedagogiaren muina: ematen den eta jasotzen den zaintzaren kontzientzia hartzea, iragana ulertuz eta etorkizunaren irudikatze arduratsua eginez: zer zaintza eman nahi dudan eta nola jaso eta eskertu behar ditudan jasotzen ditudanak. Horri esaten dio Nel Noddingsek *elkarrekikotasuna* (2003): harreman afektibo asimetriko mota bat (adibidez, hezitzailea/ikaslea) non zaintza jasotzen duen aldeak baduen zaintza jasotzearen kontzientzia eta adieraz dezakeen. Zaintzeak eta zainduak izateak etorkizun partekatu baten ikuspegia, demokrazia eraikitzea eta parte-hartze aktiboa eskatzen du. Lan arloko dimentsiorako ez ezik bizitzaren dimentsio guztietarako gaitasunak lantzera hauspotzen gaitu (pertsonala, komunitarioa, teknikoa, kulturala, etxekoa, aisialdiari loturikoa eta espirituala). Pertsona helduak eta osoak izateko, beharrezkoa da lanean jakitea ez ezik, kontzientzia izatea, besteekiko interesa, elkartasuna eta enpatia izatea, komunitatearekiko, gizateriarekiko eta haren etorkizunarekiko eta datozen belaunaldiekiko kezka izatea. **Zaintza beharrizan bat da, balio bat, jardun bat eta bizitzeko modu bat**.

Laburbilduz: kontua da gure pentsatzeko, sentitzeko eta jokatzeko moduaz kontzientzia hartzea, gure pertsonaz edo historia partikularraz harago; giza espeziearen kide eta ekosistema handiago bateko kide (etorkizuneko belaunaldiak ere bai) garela eta gure harremanetan elkarren beharra dugula ulertzea. Eboluzioari loturiko beharrizana da hau: kolektiboki heldutasunera iristeko, gure gizateriaren kargu egin beharko dugu, gizateriaren kargu bere prozesuan, gaur egun ezagutzen duguna baino urrunago joateko dugun aukeraren kargu. Eta hori, besterik gabe, **garena izateko** ausardia baino ez da.

Hausnartzeko:

Hala zioen Gioconda Bellik Los portadores de sueños (2011) lanean (Amets-eramaileak):

En todas las profecías
está escrita la destrucción del mundo.
Todas las profecías cuentan
que el hombre creará su propia destrucción.

Pero los siglos y la vida
que siempre se renueva
engendraron también una generación
de amadores y soñadores;
hombres y mujeres que no soñaron
con la destrucción del mundo,
sino con la construcción del mundo
de las mariposas y los ruiseñores.

Desde pequeños venían marcados por el amor.
detrás de su apariencia cotidiana
guardaban la ternura y el sol de medianoche.
Las madres los encontraban llorando
por un pájaro muerto
y más tarde también los encontraron a muchos
muertos como pájaros.
Estos seres cohabitaron con mujeres traslúcidas
y las dejaron preñadas de miel y de hijos verdecidos
por un invierno de caricias.
Así fue como proliferaron en el mundo los portadores sueños,
atacados ferozmente por los portadores de profecías
habladoras de catástrofes.
Los llamaron ilusos, románticos, pensadores de utopías
dijeron que sus palabras eran viejas

y, en efecto, lo eran porque la memoria del paraíso
es antigua al corazón del hombre.
Los acumuladores de riquezas les temían
lanzaban sus ejércitos contra ellos,
pero los portadores de sueños todas las noches
hacían el amor
y seguía brotando su semilla del vientre de ellas
que no sólo portaban sueños sino que los
multiplicaban y los hacían correr y hablar.
De esta forma el mundo engendró de nuevo su vida
como también había engendrado
a los que inventaron la manera
de apagar el sol.

Los portadores de sueños sobrevivieron a los
climas gélidos pero en los climas cálidos casi parecían brotar por
generación espontánea.
Quizá las palmeras, los cielos azules, las lluvias
torrenciales tuvieron algo que ver con esto,
la verdad es que como laboriosas hormiguitas
estos especimenes no dejaban de soñar y de construir
hermosos mundos,
mundos de hermanos, de hombres y mujeres que se
llamaban compañeros,
que se enseñaban unos a otros a leer, se consolaban
en las muertes,
se curaban y cuidaban entre ellos, se querían, se
ayudaban en el
arte de querer y en la defensa de la felicidad.

Eran felices en su mundo de azúcar y de viento,
de todas partes venían a impregnarse de su aliento,
de sus claras miradas,
hacia todas partes salían los que habían conocido

portando sueños soñando con profecías nuevas
que hablaban de tiempos de mariposas y ruiseñores
y de que el mundo no tendría que terminar en la
hecatombe.
Por el contrario, los científicos diseñarían
puentes, jardines, juguetes sorprendentes
para hacer más gozosa la felicidad del hombre.

Son peligrosos - imprimían las grandes rotativas
Son peligrosos - decían los presidentes en sus discursos
Son peligrosos - murmuraban los artífices de la guerra.
Hay que destruirlos - imprimían las grandes rotativas
Hay que destruirlos - decían los presidentes en sus discursos
Hay que destruirlos - murmuraban los artífices de la guerra.

Los portadores de sueños conocían su poder
por eso no se extrañaban
también sabían que la vida los había engendrado
para protegerse de la muerte que anuncian las
profecías y por eso defendían su vida aun con la muerte.
Por eso cultivaban jardines de sueños
y los exportaban con grandes lazos de colores.
Los profetas de la oscuridad se pasaban noches y días enteros
vigilando los pasajes y los caminos
buscando estos peligrosos cargamentos
que nunca lograban atrapar
porque el que no tiene ojos para soñar
no ve los sueños ni de día, ni de noche.

Y en el mundo se ha desatado un gran tráfico de
sueños que no pueden detener los traficantes de la muerte;
por doquier hay paquetes con grandes lazos
que sólo esta nueva raza de hombres puede ver
la semilla de estos sueños no se puede detectar

porque va envuelta en rojos corazones
en amplios vestidos de maternidad
donde piesecitos soñadores alborotan los vientres
que los albergan.

Dicen que la tierra después de parirlos
desencadenó un cielo de arcoiris
y sopló de fecundidad las raíces de los árboles.
Nosotros sólo sabemos que los hemos visto
sabemos que la vida los engendró
para protegerse de la muerte que anuncian las
profecías.

Horrela abesten dute Bebe eta Susuk "Mujer Montaña" abestian.

Bibliografia eta intereseko erreferentziak

Acosta, A. (2010). El Buen Vivir en el camino del post-desarrollo. Una lectura desde la Constitución de Montecristi. *Policy Paper 9* Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

Aguado, G. (2018). La Pedagogía de los cuidados. Una mirada educativa que es urgente incorporar. En *Pedagogía de los cuidados. Aportes para su construcción*. Bilbao, España: InteRed.

Aguilar, T. y Landa, C. (2003). *Un saber apropiado para participar*. En Campos de juego de la ciudadanía. Madrid, España: El viejo Topo.

Alonso, A. (2012). *Pedagogía de la interioridad,* Madrid, España: Narcea

Bartolomé, M. (2002). *Identidad y Ciudadanía. Un reto a la educación intercultural.* Madrid, España: Narcea.

Boff, L. (2002). *El cuidado esencial. Ética de lo humano compasión por la tierra.* Madrid, España: Trotta

Boff, L.(2012). *El cuidado necesario*. Madrid, España: Trotta

Cabnal, L. (2010). Acercamiento a la construcción del pensamiento epistémico de las mujeres indígenas feministas comunitarias de Abya Yala. En ACSUR-Las Segovia; Cabnal, L. (Ed), *Feminismos diversos: el feminismo comunitario* (pp. 10-25). España: ACSUR-Las Segovias.

Carrasco, C. (2009). Mujeres, sostenibilidad y deuda social. *Revista de Educación,* núm. *extraordinario 2009*, pp. 169-191. Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

Chaux, E., Daza, B., y Vega, L. (2008). *Las relaciones de cuidado en el aula y la institución educativa*. Bogotá, Colombia: MEN - Colombia aprende.

Comins, I. (2008). *La ética del cuidado y la construcción de la paz.* Barcelona, España: Icaria Editorial.

Confederación Mapuce de Neuquén (2010). *Propuesta para un kvme felen mapuce.* Neuquén, Argentina: CMN. Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

De Blas, A. (2012). *Pistas para un modelo de vida sostenible.* Madrid, España: InteRed. Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

De Blas, A. (2012). *Crecer con cuidados. El juego de la jenga*. Madrid, España: InteRed. Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

De Blas, A. (2014). *La Revolución de los cuidados. Tácticas y estrategias.* Madrid, España: InteRed. Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

De Sousa, B. (2010). *Refundación del Estado en América Latina: perspectivas desde una epistemología del sur.* Buenos Aires, Argentina: Antropofagia.

Díaz, M. y Ost, N. (2012). *Jugar y Actuar, nuestras armas para la paz. Juego teatral y procesos colectivos de aprendizaje.* Madrid, España: InteRed.

García, M. y García, J. (2012). *Filosofía de la educación. Cuestiones de hoy y de siempre.* Madrid, España: Narcea - UNED.

Gargarella, R. (1999). *Derecho y grupos desaventajados.* Barcelona, España: Editorial Gedisa, S.A.

Gilliagan, C. (1982). *In a Different Voice.* Cambridge, Reino Unido: Harvard University Press.

Gudynas, E. (2011). Buen vivir: Germinando alternativas al desarrollo. *América Latina en Movimiento, ALAI, 462,* 1-20. Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

Herrero, Y. (2008). *Tejer la vida en verde y violeta. Vínculos entre ecologismo y feminismo.* Madrid, España: Ecologistas en Acción. Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

Herrero, Y. (2010). Cuidar: una práctica política anticapitalista y antipatriarcal. En C. Taibo (Ed.), *Decrecimientos: sobre lo que hay que cambiar en la vida cotidiana.* Madrid, España: Catarata.

Ibáñez, A. (2016). Un acercamiento al "Buen Vivir". *Revista internacional sobre investigación en educación global y para el desarrollo, 10,* 211-224. Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

InteRed (2016). Enseñanzas del Buen Vivir para construir una pedagogía del cuidado. *Revista internacional sobre investigación en educación global y para el desarrollo, 10,* 71-80. Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

InteRed (2018). *Pedagogía de los cuidados. Aportes para su construcción.* Bilbao, España: InteRed.

Lagarde, M. (2004). *Vías para el empoderamiento de las mujeres.* Valencia, España: Proyecto Equalde Igualdad de Oportunidades en el Metal.

Lagarde, M. (2012). *El feminismo en mi vida.* México: Instituto de las Mujeres del Distrito Federal.

Maquieria, V. y otros. (2006). *Mujeres, Globalización y derechos humanos*. Valencia, España: Ediciones Cátedra.

Mejía, J. (1998). *Recuperar la conciencia de sujeto. La interioridad, dimensión olvidada*. Bogotá, Colombia: CINEP/PPP.

Mendoza, M. (2009). *Justicia climática: una tarea pendiente.* Managua, Nicaragua: CLACSO.

Mollo, I. (2012). *La revolución de los cuidados. Madrid, España:* Plataforma "Muévete por la igualdad".

Morin, E. (2003). *El método. La humanidad de la humanidad. La identidad humana.* Madrid, España: Cátedra.

Mujica, R. (2006). *Herramientas y metodologías para la educación en derechos humanos.* Costa Rica: IIDH.

Noddings, N. (2003). *Caring. A feminine approach to ethics and moral education.* Berkeley, EEUU : University of California Press.

Patarroyo, L.E. (2016). *Método pedagógico en las Rutas metodológicas innovadoras para la promoción de la integridad, la transparencia y el sentido de lo público.* Bogotá, Colombia: CINEP/PPP-FIIAPP.

Patarroyo, L.E. (2018). La realidad escolar y la Pedagogía de los cuidados. En *Pedagogía de los cuidados. Aportes para su construcción.* Bilbao, España: InteRed.

Pérez, A. (2014). *Subversión feminista de la economía.* Madrid, España: Traficantes de sueños. Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

Pruna, J. y De Miguel, X. (2005). *Aprender a cuidar y a cuidarnos.* Barcelona, España: Octaedro.

Quijano, A. (2000). Colonialidad del poder, eurocentrismo y América Latina. En Lander, E. *La colonialidad del saber: eurocentrismo y ciencias sociales.*

Perspectivas latinoamericanas (pp. 201-246). Buenos Aires, Argentina: UNESCO-CLACSO, 2003 (3ª. Edición).

Sacavino, S. (2012). *Democracia y educación en derechos humanos en América Latina.* Bogotá. Colombia: Ediciones Desde abajo.

Schavelzon, S. (2015). *Plurinacionalidad y Vivir Bien/Buen Vivir. Dos conceptos leídos desde Bolivia y Ecuador post-constituyentes.* Quito, Ecuador: Abya Yala - Clacso.

Toro, B. (2015). *El cuidado: el paradigma ético de la nueva civilización.* Colombia: Avina.

UNESCO (2015). *Replantear la educación ¿Hacia un bien común mundial?* París, Francia. Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

Vázquez, V. (2009). *La educación y la ética del cuidado en el pensamiento de Nel Noddings*. Valencia, España: Universitat de València.

Vázquez, V. (2009). *La perspectiva de la ética del cuidado: una forma diferente de hacer educación.* Valencia, España: Universidad de Valencia.

Vázquez, V. Escámez, J. y García, R. (2012). *Educación para el cuidado. Hacia una nueva pedagogía.* Valencia, España: Editorial Brief.

Vázquez, V. (2013). *Nuevos retos para combatir la violencia de género desde el sistema educativo*. Valencia, España: Universitat de València.

Villanueva, E. (2014). *Politizando lo cotidiano en la educación para el desarrollo: Hacia una "revolución de los cuidados".* Comunicación presentada para el IV Congreso de Educación para el Desarrollo. Vitoria-Gasteiz, España: Hegoa.

Villanueva, E. (2014). *Los pinceles de Artemisia.* Madrid, España: InteRed. Hemendik berreskuratua: ZABALDU ESTEKA

Wilber, K. (2006). *Breve historia de todas las cosas.* Barcelona, España: Kairós.

Testuko erreferentziak

Belli, G. (2011). *Portadores de sueños.* Sleepyslaps.

Carter, A. (2016). *Cuentos de Angela Carter.* Impedimenta.

Franke-Grisch, M.(2012). *Eres uno de nosotros.* Alma Lepik.

Galeano, E. (1998). *Patas arriba, la escuela del mundo al revés.* SigloXXI.

Grimm, J. y W. (2006). *Todos los cuentos de los hermanos Grimm.* Editorial R. Steiner.

Herrero, J. (2016). *Evaluación: el traje nuevo de la educación.* Ojo de Agua.

Hughes, E, (2016). *El pequeño jardinero.* Impedimenta.

Liao, J. (2012). *Abrazos.* Barbara Fiore editora.

Wilber, K. (1984). *La conciencia sin fronteras.* Kairós.

Wilber, K. (1987). *Cuestiones cuánticas.* KairósConclusión: el camino de la conciencia


GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


Bizkaia
foru aldundia
diputación foral


ZAINTZEN
PEDAGOGIA
PEDAGOGÍA DE
LOS CUIDADOS


InteRed
por una educación transformadora